AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, FUNTS PUBLIKOEKIN FINANTZATUTAKO EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZA POSITIBOARI ETA INGURUNE SEGURUEI BURUZKO DEKRETUAREN PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKOA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak II. kapituluan xedatzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da.

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, "xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

2026ko ekainaren 16an, Hezkuntzako sailburuak agindu zuen hasiera emateko funts publikoekin finantzatutako Euskal Hezkuntza Sistemako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako bizikidetza positiboari eta ingurune seguruei buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Proiektuaren testua idatzi ondoren, eta hasteko agindu horretan ezarritako helburuarekin bat etorriz, bidezko entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik onartu behar da.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea funts publikoekin finantzatutako Euskal Hezkuntza Sistemako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako bizikidetza positiboari eta ingurune seguruei buruzko dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko prozedura amaitzeko behar diren instrukzio-egintzekin jarraitzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den eguna.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO

Hezkuntzako sailburua

xx/XXXX DEKRETUA, 2027ko XXaren XX(e)koa, funts publikoekin finantzatutako Euskal

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Hezkuntza Sistemako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako bizikidetza positiboari eta ingurune seguruei buruzkoa.

AURKIBIDEA

ATARIKOA.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

2. artikulua. Bizikidetza positiboa.

3. artikulua. Bizikidetza positiboaren printzipioak.

4. artikulua. Bizikidetza positiboaren helburuak.

II. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA GARATZEKO IKASTETXE-PLANAK.

5. artikulua. Ikastetxeko bizikidetza-plana.

6. artikulua. Bizikidetza-planaren printzipio orokorrak.

7. artikulua. Bizikidetza-planaren helburu orokorrak.

8. artikulua. Ikastetxeko bizikidetza-planaren egitura eta edukiak.

9. artikulua. Bizikidetza positiboaren arauak.

10. artikulua. Araudia egiteko eta berrikusteko prozesua.

III. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA KUDEATZEKO IKASTETXE-EGITURAK

11. artikulua. Bizikidetza kudeatzeaz zuzenean arduratzen diren antolamendu- eta funtzionamendu-egiturak.

12. artikulua. BAT taldearen osaera eta ongizatearen eta babesaren koordinazioa.

13. artikulua. BAT taldearen ardurak eta eginkizunak.

14. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzaren behatokiaren ardurak, eginkizunak eta osaera.

15. artikulua. Ikasleen ordezkaritza bizikidetza positiboaren kudeaketaren antolamenduan eta funtzionamenduan.

16. artikulua. Familien ordezkaritza bizikidetza positiboaren kudeaketaren antolamenduan eta funtzionamenduan.

IV. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA GARATZEKO OHIKO ESKU-HARTZEAK KUDEATZEA ETA HOBETZEA.

1. ATALA: IKASTETXEEN ESKU-HARTZEAK BIZIKIDETZA POSITIBOAREN ESPARRUAN.

17. artikulua. Ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspuntu errestauratiboa bizikidetza positiboaren esparruko esku-hartzeetan.

18. artikulua. Hezkuntza-arloko esku-hartzeak diseinatzean kontuan hartu behar diren jardunbide errestauratiboak.

19. artikulua. Prebentziozko jardunbideak, hezkuntza-arloko esku-hartzeak diseinatzeko estrategia gisa.

20. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: komunitatea sortzea.

21. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: entzuteko eta zaintzeko kultura sortzea.

22. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: bizikidetzan eta gaitasun sozioemozionalean heztea.

23. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: ikasleei protagonismo aktiboa ematea. Berdinen arteko laguntza-sistemak (BLS, gaztelaniaz SAI), hezkuntza-arloko esku-hartzeetarako prebentzio-estrategia gisa.

24. artikulua. Jardunbide erreaktiboak, gatazka-egoeretan esku-hartzeak diseinatzeko eta eragindako kaltea erreparatzeko estrategia gisa.

25. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: elkarrizketa errestauratiboa.

26. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: solasaldi errestauratiboa.

27. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: eskola-bitartekotza.

28. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: bilera errestauratiboa.

29. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: beste estrategia batzuk.

30. artikulua. Berdinen arteko laguntza-sistemak jardunbide erreaktibo gisa.

31. artikulua. Erreferentzia-taldetik kanpoko ikaskuntza-jarduerak.

32. artikulua. Jokabide desegokiarekin zerikusia duten zereginak egitea.

33. artikulua. Jardunbide errestauratibo erreaktiboak aplikatzeko prozedura.

34. artikulua. Gatazka-egoeretan hezkuntzako esku-hartzeak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko eta eragindako kaltea erreparatzeko irizpide orokorrak.

35. artikulua. Bizikidetza positiborako espazioa.

36. artikulua. Entzuteko eta emozioak erregulatzeko espazioa (*Arnasgunea*).

2. ATALA: HEZKUNTZAREN ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILAK BIZIKIDETZA POSITIBORAKO

EGINGO DITUEN ESKU-HARTZEAK.

37. artikulua. Bizikidetza positiboa sustatzeko baliabideak, neurriak eta laguntzak

38. artikulua. Jarduketak garatzea, ebaluatzea eta hobetzea.

V. KAPITULUA: IKASLEEN ETA HEZKUNTZA-KOMUNITATEKO GAINERAKO SEKTOREEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

39. artikulua. Hezkuntza-komunitateko sektore guztien eskubideen eta betebeharren oinarri diren printzipio orokorrak.

2. ATALA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

40. artikulua. Ikasleen eskubideen eta betebeharren oinarri diren printzipio orokorrak.

41. artikulua. Ikasleen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, bizikidetzaren esparrukoak barne.

42. artikulua. Tratu ona jasotzeko, eta osotasun fisiko eta psikikorako, identitaterako eta duintasun pertsonalerako eskubidea.

43. artikulua. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

44. artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

45. artikulua. Informaziorako eskubidea.

46. artikulua. Askatasun ideologikorako eskubidea.

47. artikulua. Parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea.

48. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidea.

49. artikulua. Entzuna eta aditua izateko eskubidea.

50. artikulua. Ikasteko eta prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

51. artikulua. Bertaratzeko betebeharra.

52. artikulua. Hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak errespetatzeko betebeharra.

53. artikulua. Hezkuntza-arauak errespetatzeko betebeharra.

54. artikulua. Ingurunea, jasangarritasuna eta hezkuntza-komunitatearen gauzak errespetatzeko betebeharra.

3. ATALA: HEZKUNTZA-SEKTOREEK BIZIKIDETZAREN ESPARRUAN DITUZTEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

55. artikulua. Irakasleek eta irakasle ez diren langileek bizikidetzaren esparruan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

56. artikulua. Ikasleen familien eskubideak eta betebeharrak.

57. artikulua. Administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak eta betebeharrak.

VI. KAPITULUA: IKASTETXEETAN BIZIKIDETZA POSITIBOA NAHASTEN DUTEN JOKABIDEAK. ESKOLA-JAZARPENA ETA -ZIBERJAZARPENA ETA IKASLEEN JOKABIDE SUIZIDAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

58. artikulua. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria testuinguru sozialean.

59. artikulua. Ikastetxeetan bizikidetza positiboa nahasten duten jokabideak.

60. artikulua. Ikastetxeetan izaten diren indarkeriazko jokabideak.

61. artikulua. Ikastetxeetan izaten diren gatazkak.

62. artikulua. Ikasleen jokabide disruptiboak.

2. ATALA: ESKOLA-JAZARPENA ETA ESKOLA-ZIBERJAZARPENA.

63. artikulua. Eskola-jazarpena eta eskola-ziberjazarpena, eskola-indarkeriaren modu espezifikoak.

64. artikulua. Eskola-jazarpena modu hezigarrian prebenitzea.

65. artikulua. Ustezko eskola-jazarpen kasuak direla-eta esku hartzeko eskaerak egiten direnean, modu hezigarrian jardutea.

3. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU-HARTZEAK, IKASLEEN JOKABIDE SUIZIDEI AURRE EGITEKO.

66. artikulua. Xedapen orokorrak.

67. artikulua. Jarduteko protokoloak.

VII. KAPITULUA: HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO NEURRIAK, ELKARBIZITZA POSITIBOA ASALDATZEN DUTEN IKASLEEN JOKABIDEEN AURREAN JOKABIDEAK ALDATZEKO DIRENAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

68. artikulua. Irizpide orokorrak.

69. artikulua. Jokabideen sailkapena.

70. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien beharra izan dezaketen jokabideen zerrenda.

71. artikulua. Ikastetxetik kanpo izandako jokabideengatiko edo ekintzengatiko erantzukizuna.

72. artikulua. Eragindako kalteak erreparatzea.

73. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak proportzionaltasunez aplikatuko direla bermatzeko irizpideak.

74. artikulua. Prozedurak hasteko gehieneko epeak.

75. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduren epeak.

76. artikulua. Ebaluazio jarraitua egin ezin izatea, etengabe bertaratze-hutsegiteak egiteagatik.

77. artikulua. Eskola-kontseiluari eta irakasleen klaustroari bizikidetzaren aurkako jokabideei eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideei buruzko informazioa ematea.

78. artikulua. Polizia-zerbitzuetan edo organo judizialetan salaketa bat jartzen denean ikastetxeak egin beharreko jarduketetarako irizpideak.

79. artikulua. Dekretu honetan arautzen diren prozeduretako datu pertsonalak tratatu, babestu eta kentzea.

2. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU HARTZEKO NEURRIAK APLIKATZEA JOKABIDE DESEGOKIAK ETA BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ALDATZEKO.

80. artikulua. Jokabide desegokiak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak. Aplikazio-prozedura.

81. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

82. artikulua. Aplikazio-prozedura.

3. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU HARTZEKO NEURRIAK APLIKATZEA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK ALDATZEKO.

83. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

84. artikulua. Behin-behineko neurriak.

85. artikulua. Ikastetxez aldatzeko proposamena.

86. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak.

87. artikulua. Prozedura orokorra eta adiskidetze-prozedura hastea.

88. artikulua. Adiskidetze-prozedurak aurrera jarraitzea. Bideratzaileak edo bitartekariak esku hartzea. Ebazpena eta epeak.

89. artikulua. Prozedura orokorrak aurrera jarraitzea. Ebazpena, jakinarazpena eta epeak. Erreklamazioak. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko unea.

90. artikulua. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokien gizarte-zerbitzuei jakinaraztea. Fiskaltzari jakinaraztea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Ikastetxeetako bizikidetza-planak aldatzea.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ikastetxeetako antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak aldatzea.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Hizkuntza ofiziala.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Aldez aurretik abiarazitako prozedurak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. Garatzeko eta betearazteko ahalmena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Indarrean jartzea.

ATARIKOA

Bizikidetza positiboa Euskal Hezkuntza Sistemaren zutabeetako bat da. Hezkuntzarako eskubidea ezin da ulertu ikasleek hezkuntza-ingurune seguruetan, inklusiboetan, errespetuzkoetan eta ongizate pertsonal eta sozialaren sustatzaileetan garatzeko duten eskubidetik bereizita. Alde horretatik, bizikidetza positiboa ezinbesteko baldintza da ikasteko, ikasleen garapen integrala lortzeko eta hezkuntza-komunitatea kohesionatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak hezkuntza-jarduera bideratu behar duten printzipioen artean kokatzen ditu bizikidetza positiboa, inklusioa, ekitatea, hezkidetza, ongizate sozioemozionala eta indarkeria-mota guztien gaitzespena. Era berean, eskola espazio seguru, babesle, demokratiko eta parte-hartzailetzat hartzea indartzen du, non ikasleek posizio zentrala duten eta hezkuntza-komunitateko sektore guztiek haurren eta nerabeen eskubideekiko errespetua bermatzeko erantzukizuna partekatzen duten.

Bestalde, indarrean dauden curriculuma garatzeko dekretuetan jasota dago bizikidetzaren hezkuntza-balioa indartzen duen gaitasun-ikuspegia. Gaitasun pertsonalak, sozialak, ikasten ikastekoak eta herritartasunerako gaitasunak bizikidetzaren ikaskuntza, parte-hartze demokratikoa, gatazken kudeaketa baketsua, erantzukizun pertsonala eta kolektiboa eta ongizate sozioemozionala kokatzen dituzte curriculumaren funtsezko dimentsio gisa. Ikuspegi horretatik, bizikidetza positiboa ez da soilik antolamendu-esparru bat edo zailtasun-egoerei erantzuteko esparru bat, baizik eta ikaskuntza-eremu bat ere bada, modu planifikatu, zeharkako eta sistematikoan garatu behar dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak esparru komun bat eskaini zuen ikasleen eskubideak eta betebeharrak ordenatzeko, bizikidetza aldatzen duten jokabideak sailkatzeko eta haiek hezkuntzan lantzeko prozedurak arautzeko. Arau horrek aurrerapen garrantzitsua ekarri zuen, segurtasun juridikoa ematen baitzien ikastetxeei, ikasleei eta haien familiei, eta esparru hartan aurreikusitako neurrien hezkuntza-helburua txertatzen baitzuen, bai eta bide alternatiboak ere, hala nola adiskidetzea, kaltearen erreparazioa eta hezkuntza-konpromisoak.

Hala ere, 2008az geroztik, hezkuntza-, gizarte- eta arau-esparruak aldaketa sakonak izan ditu. Egungo eskolak hauei erantzun behar die: errealitate konplexuagoei; aurrez aurreko harreman-modu eta harreman digital berriei; ikasleen ongizate sozioemozionala indartzeko dagoen beharrari; haurrek eta nerabeek edozein indarkeria-motaren aurrean babes integrala jasotzeari buruzko kontzientzia sozial eta instituzional handiagoari. Horregatik guztiagatik komeni da jokabideen zuzenketan oinarritutako ikuspegi batetik eredu zabalago, prebentibo, hezitzaile, errestauratibo, inklusibo eta erantzukide baterantz aurrera egitea.

Dekretu honek 201/2008 Dekretuak egindako ekarpena aitortzea du abiapuntu, eta haren planteamenduak eguneratzen ditu ikastetxeen egungo beharrei hobeto erantzuteko. Zehazki, prozedura zuzentzaileen logikaren ordez, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien logika ezartzen du, jarduketen izaera prebentiboa eta leheneratzailea indartzen du,

begirada hezkuntza-komunitate osora zabaltzen du, eta erregulazio bakarrean txertatzen ditu eskubideak, betebeharrak, egiturak, planak, esku-hartzeak, protokoloak eta ingurune seguruak eraikitzeko beharrezkoak diren neurriak.

Araudi berriak erantzuna ematen die, baita ere, hezkuntza-jardunbideen bilakaerari eta ikastetxeetan pilatutako ezagutzari. Jardunbide errestauratiboek, bitartekaritzak, berdinen arteko laguntza-sistemek, bizikidetza positiborako konpromisoek, banakako tutoretzek, emozioak entzuteko eta erregulatzeko espazioek eta datu eta ebidentzietan oinarritutako esku-hartzeek hezkuntza-balio handia erakutsi dute gatazkak prebenitzeko, kaltea konpontzeko, loturak berreraikitzeko eta ikasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren erantzukizuna sustatzeko.

Prozesu horretan, bereziki garrantzitsua da Bizikasi ekimena, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak abian jarria eskola-jazarpenaren aurkako eta bizikidetza positiboaren aldeko ekimen gisa. Bizikasi ekimenak aukera eman du bizikidetzari eta eskola-jazarpenaren kontzeptualizazioari buruzko hizkuntza komun bat sortzeko, hezkuntza-komunitatearen prestakuntza bultzatzeko, material didaktikoak eta prebentziorako, detekziorako eta esku-hartzerako tresnak sustatzeko, eta tratu onaren, elkarrekiko zaintzaren, erantzukizun partekatuaren eta edozein indarkeria-motaren aurrean zero tolerantziaren kultura zabaltzeko. Dekretu honek ekimen horren bidez finkatutako ikaskuntzak txertatzen eta orokortzen ditu, eta funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztientzako arau-esparru komun batean integratzen ditu.

Abian jarri zenetik, ikastetxeek pixkanaka-pixkanaka txertatu dituzte diagnostiko- eta autoebaluazio-tresnak, behaketa- eta komunikazio-prozedurak, tutoretza-ekintzarako curriculum-materialak, jarduketa-protokoloak, berdinen arteko laguntza-estrategiak eta jardunbide errestauratiboak. Ibilbide horri esker, prebentzioan, detekzio goiztiarrean, hezkuntzako esku-hartzean eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako ikastetxe-kultura finkatu da.

Prozesu horren aurrerapen garrantzitsuenetako bat izan da BAT taldeak funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan finkatzea. Talde horiek erreferentziazko egitura egonkor bat dira bizikidetza positiboaren kudeaketa gidatu eta koordinatzeko, ongizate sozioemozionala sustatzeko, prebentziozko jarduerak bultzatzeko, esku hartzeko eskaerak bideratzeko eta hezkuntza-erantzunak koordinatzeko eskola-jazarpeneko, emakumeen aurkako indarkeriako, beste indarkeria mota batzuetako, ondoez emozionaleko edo ikasleen jokabide suizidetako egoeren aurrean. Haien orokortzeak ikastetxeen barne-gaitasuna indartu du, eta koherentzia handiagoa eman die hezkuntza-komunitatearen jarduketei.

Dekretu horrek ibilbide hori jasotzen du, eta arau-babesa ematen dio; bizikidetza positiboa kudeatzeko ikastetxeko egiturak antolatzen ditu, bereziki BAT taldea eta bizikidetzaren behatokia, eta ikasleen eta familien parte-hartzea funtsezko elementua da hezkuntza-komunitate erantzukide, inklusibo eta seguruak eraikitzeko.

Arauak, gainera, ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspegi leheneratzailea integratzen ditu hezkuntzako esku-hartzeak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko irizpide orokor gisa. Horrek esan nahi du egoera bakoitza ulertu behar dela inplikatutako pertsonei, taldeari,

zentroari, familiei eta gizarte-testuinguruari dagokienez, eta erantzunak zuzen bideratu behar direla kaltea erreparatzera, bizikidetza leheneratzera, erantzukizunak onartzera eta harreman-modu berriak ikastera.

Ikasleen bizikidetzan eta ongizatean eragina duten egoera jakin batzuen konplexutasun gero eta handiagoa da, eta horrek, halaber, beste sistema eta zerbitzu publiko batzuekin koordinatutako erantzunak eskatzen ditu. Adingabeen interes gorena babesteko, beharrezkoa da, hala badagokio, hezkuntza-esparruaren, gizarte-zerbitzuen, osasun-sistemaren, polizia-zerbitzuen eta organo judizialen arteko lankidetza, esku-hartzeak koherenteak, proportzionalak eta eraginkorrak izan daitezen eta inplikatutako pertsona guztien eskubideak errespeta ditzaten.

Dekretuak haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzko esparru berria ere jasotzen du. Bereziki, kontuan hartzen ditu Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legea, zeinek indartzen baitituzte ingurune seguruaren, tratu onaren, berehalako arretaren, prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, babesaren eta kaltearen erreparazioaren kontzeptuak, bai eta ikasleen ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen figura ere.

Era berean, araua bat dator hezkuntzaren arloko Estatuko oinarrizko legeriarekin, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak emandako idazkeran, bizikidetzari, bizikidetza-planei, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeari, jarduketa-protokoloei eta irakasleen agintaritza publikoaren aintzatespenari dagokienez.

Esparru horrekin bat etorriz, dekretu honen helburua da eskola-bizitza aldatzen duten jokabideen aurrean erreakzionatzera mugatzen ez den eredu bat finkatzea, beste eredu bat finkatu nahi baita, modu planifikatuan sustatzen duena tratu ona, inklusioa, parte-hartzea, ongizate sozioemozionala, hezkidetza, erantzukidetasuna eta indarkeria mota ororen prebentzioa.

Dekretuak zazpi kapitulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen ditu.

I. kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu; II. kapituluak ikastetxeetako bizikidetza-planak arautzen ditu; III. kapituluak bizikidetza positiboa kudeatzeko ikastetxeko egiturak antolatzen ditu, eta IV. kapituluak elkarbizitza positiboa garatzeko ohiko esku-hartzeen kudeaketa eta hobekuntza jorratzen ditu.

V. kapituluak hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu; VI. kapituluak elkarbizitza positiboa, eskola-jazarpena, eskola-ziberjazarpena eta ikasleen jokabide suizidak aldatzen dituzten jokabideak jorratzen ditu, eta VII. kapituluak hezkuntza-arloan esku hartzeko neurriak ezartzen ditu, ikasleek bizikidetza hori aldatzen dutenean aplika daitezkeen jokabideak aldatzeko.

Horrenbestez, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, indarrean dagoen araudian adierazitako izapideak egin ondoren, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun eta gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz eta Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu

ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1.- Dekretu honen xedea da Euskal Hezkuntza Sistemako funts publikoekin finantzatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan bizikidetza positiboa eta ingurune seguruen bermea arautzea, bai eta haiek sustatzeko, prebenitzeko, babesteko eta hezkuntzan esku hartzeko behar den jarduera-esparru orokorra ezartzea ere.

2.- Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztietan aplikatuko da.

3.- Dekretu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko itundu gabeko ikastetxe pribatuei; nolanahi ere, indarrean dagoen araudiak aitortzen dien autonomia baliatuz, beren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak beren aurreikuspenetara egokitu ahal izango dituzte.

4.- Nolanahi ere, itundu gabeko ikastetxe pribatuek errespetatu egin beharko dituzte indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ikasleei aitortzen zaizkien eskubideak, eta bermatu egin beharko dute, bizikidetza asaldatzen duten jokabideen aurrean hezkuntza-arloan esku hartzeko neurriak hartzeko ezartzen diren prozeduretan, proportzionaltasunaren printzipioa, interesdunari eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariei entzuteko printzipioa, egitate berberengatik neurriak ez bikoiztea, eta hartutako erabakiak idatziz jakinaraztea.

2. artikulua. Bizikidetza positiboa.

1.- Dekretu honen ondorioetarako, bizikidetza positiboa da egunez egun eraikitzen dena, norberarekin, beste pertsonekin eta ingurunearekin harremanak ezarriz, elkar zaintzean, giza duintasunean eta giza eskubideekiko errespetuan oinarrituta.

2.- Ikastetxeek ikasleengan sustatuko dute bizikidetza positiboko harremanak eraikitzeko, mantentzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratu eta garatzea, eskola-bizitzaren eremu guztietan. Horretarako, bizikidetza positiboari ikuspegi prebentibo, hezitzaile eta zeharkako batetik helduko zaio, eta ez soilik berdinen arteko tratu txarren aurreko diziplinazko edo erantzunezko ikuspegietatik.

3. artikulua. Bizikidetza positiboaren printzipioak.

1.- Euskal Hezkuntza Sistemak hezkuntza-komunitateko kide guztien elkarrenganako errespetua izan behar du oinarri, eta hezkuntza irisgarri, berdinzale, inklusibo eta kalitatezkoa sustatu behar du, zeinak haurren eta nerabeen erabateko garapena ahalbidetu behar baitu eta indarkeriarik gabeko eskola seguru batean parte hartzeko aukera eman behar baitie; hartara, haien oinarrizko eskubide eta askatasun publiko guztien errespetua, berdintasuna eta sustapena bermatuko dira, gatazkak komunikatzeko, negoziatzeko eta konpontzeko metodo baketsuak erabiliz.

2.- Duten rola edozein delarik ere, ikastetxeetako hezitzaile guztiak dira bizikidetzaren partaide eta arduradun, eta, beraz, eskubideen eta betebeharren subjektu.

3.- Bizikidetza positiboa garatzeko, printzipio hauek hartuko dira kontuan, eta bizikidetza positiboaren aplikazioa eta interpretazioa bideratuko dute:

a) Giza duintasuna eta pertsona orori datxekion balioa errespetatzea, eta beren potentzialtasunak erabat garatzeko behar diren segurtasuna eta babesa ematea; hori bereziki garrantzitsua baita ikasleen kasuan.

b) Hezkidetza hezkuntza-sistemaren funtsezko elementua izatea, ikasleen garapen integralerako.

c) Hezkuntza-komunitatearen ongizate sozioemozionala eta elkarrekiko zaintza sustatzea harreman-modu gisa, bai eta ikastetxeetan indarkeria mota oro prebenitzea ere. Horretarako, hezkuntza-jarduerek ikasleak erdigunean jarriko dituzte, haien premiei behar bezala erantzuteko.

d) Giza eskubideekiko eta, bereziki, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko errespetuan heztea; izan ere, eskubide horiek dira bizikidetzak beti errespetatu behar dituen mugak eta minimoak ezartzen dituzten kode moralak, batez ere adingabeen interes gorenak lehentasuna izan dezan haien hezkuntza-prozesuan egon daitekeen beste edozein interes legitimoren gainetik.

4. artikulua. Bizikidetza positiboaren helburuak.

1.- Bizikidetza positiboan eta bizikidetza positiborako heztea; hor sartzen dira ongizate sozioemozionala eta ikastetxeetan elkar zaintzean oinarritutako harremanak izatea, prebentzioaren bidez eta norberarekin, gainerako pertsonekin eta ingurunearekin harreman positiboak izateko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen dituzten planteamendu proaktiboen bidez. Horrek eskatzen du xede horretarako koherenteak diren balioak, jarrerak edo portaerak garatzea.

2.- Bakearen kulturan eta eskola-indarkeria mota ororen prebentzioan oinarritutako eskola-giroa sortzea, ikasleei eta hezkuntza-komunitate osoari beren ahalmenak erabat garatzeko aukera emango diena.

3.- Bizikidetza positiboari buruzko lanaren euskarri izango diren antolaketa- eta funtzionamendu-jarduerak egitea, betiere ikastetxe bakoitzak esparru honetan lortu nahi dituen helburuekin koherenteak izanik.

4.- Osasun mentala eta hura babesteko elementuak sustatzea, osasun mentalarekin lotutako arrisku-faktoreak prebenituz.

5.- Irakasleak bizikidetza positiboko, aniztasunari erantzuteko, inklusioko, berdintasuneko, hezkidetzako eta kulturartekotasuneko testuinguruetan lan egiteko gaitzea.

6.- Sentsibilizazio-, kontzientziazio- eta prestakuntza-prozesuak garatzea, ikuspegi komuna

eta partekatua izateko, bai eta bizikidetza positiboko proiektu partekatuarekin koherenteak diren jarduerak hedatzea ere.

7.- Hezkuntza-komunitate osoak ikastetxea demokratikoki kudeatzen parte hartzeko, horretan inplikatzeko eta konpromisoa hartzeko bideak ezartzea. Ikastetxea ikaskuntza-komunitate gisa ulertu behar da, ikastetxearen proiektu partekatuarekin lotzeko funtsezko modua izan dadin hori.

8.- Erantzukizun kolektiboaren eta indibidualaren arteko lotura sustatzea.

9.- Ikastetxetik kanpoko eragileekin lankidetzan aritzea, bizikidetza positiboaren helburuak lortzeko.

10.- Bizikidetza positiboaren curriculuma abian jartzea, kultura- eta genero-estereotipoak gainditzeko tutoretza-planen eta banakako tutoretzen bidez, eta, zeharka, arlo, ikasgai, esparru edo modulu guztietan txertatuta.

11.- Bizikidetza-plana, hezkidetza-plana eta tutoretza-plana egitea eta eguneratzea, ikastetxeko eta ikasgelako araudia betez, bai eta bizikidetza positiboarekin zerikusia duten ikastetxeko gainerako dokumentuak egitea eta eguneratzea ere.

12.- Arreta espezifikoa ematea ikasle zaurgarrienei, eskola-arrakasta izan dezaten, estrategia pedagogiko egokien bidez.

13.- Bizikidetza haustea dakarten egoerei aurre egiteko hezkuntza-bideak abian jartzea, jardunbide errestauratiboen, gatazkak konpontzeko prozesuen, hezkuntza-konpromisoen eta, bizikidetza positiboa nahasten duten ikasleen jokabideak direla-eta, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduren bidez, egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera.

14.- Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak ezarritako jarduketa-prozedurei jarraitzea, eskola-jazarpeneko, emakumeen aurkako indarkeriako, ikasleen jokabide suizidetako eta bizikidetzaren kalitatean zuzenean eragiten duten beste jokabide batzuetako egoera posibleen aurrean.

II. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA GARATZEKO IKASTETXE-PLANAK.

5. artikulua. Ikastetxeko bizikidetza-plana.

1.- Ikastetxeko bizikidetza-planean zehaztuko da nola garatu ikastetxeko bizikidetza positiboa.

2.- Ikastetxeko bizikidetza-planak modu koherentean antolatuko ditu ikastetxeko bizikidetza-eremuarekin zerikusia duten proposamen, jarduketa eta dokumentu guztiak.

3.- Ikastetxearen urteko planean jaso beharko da ikastetxeak bizikidetza-planeko zer helburu eta jarduera garatuko dituen dena delako ikasturtean.

6. artikulua. Bizikidetza-planaren printzipio orokorrak.

1.- Bizikidetza-plana dokumentu funtzional bat da, hezkuntza-komunitateak bizikidetza positiboa eraikitzeko hartutako erabakitik sortua; ikastetxeen ezaugarri eta beharretara eta ikastetxeek esku hartzen duten testuingurura dago egokituta. Plana modu parte-hartzailean eta hezkuntza-komunitateko sektore guztien adostasunarekin egin eta eguneratuko da

2.- Bizikidetza-planak, ikastetxe bakoitzaren eremuan, indarreko araudian ezarritako printzipioak, helburuak, balioak eta gaitasunak jaso eta garatuko ditu. Era berean, hura aplikatzeko eta irakasteko eta ikasteko beharrezkoak diren curriculum- eta antolaketa-neurriak jasoko ditu, arlo, ikasgai, esparru eta modulu guztietatik.

3.- Funts publikoekin finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiek egin beharko dute beren bizikidetza-plana. Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan sartu beharko da, eta harekiko koherentea izan beharko du.

4.- Hezkuntza-komunitateko kide guztiek ezagutu eta bete behar dute bizikidetza-plana, eta, hala dagokienean, plan hori ez betetzeak izan ditzakeen ondorioak onartu beharko dituzte.

5.- Bizikidetza-plana urtero eguneratu eta egokituko da, ikasturte bakoitzerako zehaztuta.

7. artikulua. Bizikidetza-planaren helburu orokorrak.

Bizikidetza-planak elkarbizitza positiboaren helburu orokorrak garatzen eta aplikatzen lagunduko du, ikastetxearen beraren esparruan, helburu hauek lortuz:

1.- Gobernu-organoei, irakasleei eta gainerako hezitzaileei tresnak eta baliabideak ematea, indarkeria prebenitu eta ikastetxeko bizikidetza hobetu dadin.

2.- Hezkuntza-komunitatea eskola-bizikidetza egokiak duen garrantziaz eta bizikidetza hori hobetzeko prozedurez kontzientziatzea eta sentsibilizatzea.

3.- Ikastetxeetan arauen onarpen- eta betetze-maila hobetzen, aniztasuna errespetatzen eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria sustatzen aurrera egiten lagunduko duten balioak, jarrerak eta jardunbideak sustatzea.

4.- Ikastetxean sor daitezken gatazkak prebenitzen, detektatzen, tratatzen, jarraipena egiten, kudeatzen eta konpontzen laguntzea, eta esperientzia- eta ikaskuntza-iturri gisa erabiltzen ikastea.

5.- Indarkeria-agerpen guztiak prebenitzen, detektatzen eta ezabatzen laguntzea, bereziki eskola-jazarpena eta pertsonen duintasunari eta osotasunari eraso egiten dioten jarrerak eta portaerak.

6.- Ikasleen ongizate sozioemozionala sustatzea.

7.- Bizikidetza positiboaren esparruak bizikidetza hori garatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzen laguntzea.

8.- Familiek eta ikasleek ikastetxeetan bizikidetza positiboa hobetzen parte har dezaten eta lankidetzan jardun dezaten sustatzea eta ahalbidetzea.

9.- Inguruko entitate eta erakundeekin harremanak finkatzea, komunitate hezigarriak eraikitzen eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak indartuko dituen kalitatezko bizikidetza lortzen laguntzeko.

8. artikulua. Ikastetxeko bizikidetza-planaren egitura eta edukiak.

Bizikidetza-planak, gutxienez, egitura eta eduki hauek izango ditu:

1.- Hainbat ikuspegitatik egindako egoeraren analisia, ikastetxeko bizikidetzaren diagnostikoa abiaburu hartuta.

2.- Bizikidetza-planaren helburu espezifikoak, egindako azterketatik eratorriak eta aurreko artikuluan aurreikusitako helburu orokorrak garatzera eta zehaztera bideratuak.

3.- Hobekuntza-ekintzen deskribapena, ikuspegi sistemiko-ekologikoaren eta ikuspuntu errestauratiboaren arabera, non hau jaso behar baita:

a) Hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa eta prestakuntza.

b) BAT taldearen eta bizikidetzaren behatokiaren lidergoa.

c) Ikasle bakoitzaren egoera pertsonal eta sozioemozionalaren, haren ingurunearen eta horien arteko interakzioen ezagutza.

d) Ikasleek ikasgelaren eta ikastetxearen kudeaketan parte hartzea eta inplikatzea, eta kudeaketa horrekin lotuta egotea.

e) Bizikidetza positiboaren curriculuma: gaitasuna pertsonala, soziala eta ikasten ikastea, eta tutoretza-plana.

f) Gerta daitezkeen eskola-jazarpenengatik, ondoez emozionalagatik eta emakumeen aurkako indarkeriagatik izan diren esku hartzeko eskaerak.

4.- Ekintza bakoitzean hauek zehaztu behar dira: nor izango den arduraduna (pertsona edo organoa) eta nor hartzailea, eta zer prozedura jarraituko diren ekintza horiek garatzeko eta gauzatzeko.

5.- Ikastetxearen bizikidetza-arauak, hezkuntza-komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak zehaztuta.

6.- Elkarbizitza positiboa aldatzen duten ikasleen jokabideen aurrean aplika daitezkeen jokabideak aldatzeko hezkuntzako esku-hartze neurriak, dekretu honen VII. kapituluan ezarritakoaren arabera.

7.- Bizikidetza positiborako espazioaren funtzionamendua, dekretu honen 35. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.- Entzuteko eta emozioak erregulatzeko espazioaren (*Arnasgunea*) funtzionamendua, dekretu honen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.- Bizikidetza kudeatzeko organoen funtzionamenduari buruzko arau espezifikoak.

10.- Ikastetxeko, familiekiko eta inguruko beste ikastetxe edo organismo batzuekiko barne-koordinaziorako eta -lankidetzarako mekanismoak.

11.- Bizikidetza-plana hedatzeko estrategiak, bai eta planaren jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza egiteko prozesuak ere.

9. artikulua. Bizikidetza positiboaren arauak.

1.- Hezkuntza-komunitateak ikastetxe osorako, ikasgeletarako edo beste ikasle-talde batzuetarako adostutako portaera-arauak dira, eta taldeko kide bakoitzak gainerako kideengandik espero duena finkatzen dute. Bizikidetza arautzen dute, bereziki eskola-jardueretakoa eta pertsonen arteko harremanetakoa, eta esparru horiek kudeatzerakoan sortzen diren zailtasunei irtenbide positiboa aurkitzea dute helburu orokorra.

2.- Helburu nagusi hauek izango dituzte: pertsona guztientzako segurtasun-giro eraginkorra, ordenatua eta lan eraginkorrerako egokia garatzea, eta hezkuntza-komunitateko kideen artean elkar zaintzeko harreman positiboak sustatzea. Horregatik, justifikatuta daudenean, proaktiboki eta prebentzioz erabiliko dira, eta sekula ez zigortzeko edo zehatzeko helburua izanda. Betiere, hartzen diren neurriak hezigarriak eta errestauratiboak izango dira.

3.- Besteak beste, egoera arruntak eta ohikoak, gatazkak konpontzeko estrategiak eta ez-betetzeen kasuan aplikatu beharreko neurriak arautuko dituzte, eta bereizi egingo dituzte, batetik, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurarik behar ez duten jarduketak, eta, bestetik, hala eskatzen dutenak.

4.- Arauak onartzen direnean, ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kide guztiek bete beharko dituzte. Argitaratu eta dokumentatu egin beharko dira, formatu irisgarrietan, eta ahalik eta gehien zabaldu behar dira hezkuntza-komunitatean, eta, hala badagokio, ikastetxeko oholen, ikastetxearen webgunearen eta ofizialki ezarritako komunikazio-kanalen bidez eskuratzeko moduan jarriko dira.

5.- Ikastetxeko eta gelako araudiek hauek arautuko dituzte, bakoitzak bere esparruan:

a) Ikasleen eta ikastetxeko langileen asistentzia eta puntualtasuna.

b) Materiala, ekipamendu digitala barne, eta instalazioak zaintzea.

c) Osasun- eta higiene-alderdiak.

d) Ikastetxeko instalazioetan, mugikorren edo antzekoen erabilera.

e) Bizikidetza zailtzen duten egoerak —hala nola gatazkak, jokabide disruptiboak eta indarkeriaz baliatzen diren jokabideak— gertatzen direnean jarduteko prozedurak.

f) Ikastetxeko bizikidetza positiboa sustatzeko garrantzitsua den beste edozein gai.

6.- Ikastetxeko araudiak berariaz, bereizita eta nahitaez arautu beharko du ikastetxean

telefono mugikorren eta antzeko beste gailu batzuen erabilera, zuzenean lotuta dagoelakoan bizikidetza positiboarekin, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien arteko errespetuarekin eta ikastetxean aplikatu beharreko erabilera-arauen barne-koherentziarekin. Erregulazio horrek ikasleengana, irakasleengana eta hezkuntzako gainerako langileengana iritsi beharko du, sektore bakoitzaren berezko funtzioak eta erantzukizunak kontuan hartuta, eta hezkuntza-, antolamendu- eta prebentzio-helburuei, ongizate digitalari, ikasleen babesari eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen garapen egokiari erantzun beharko die.

Erregulazioa ikastetxeko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian txertatu beharko da, eta, gutxienez, hauek zehaztuko ditu: erabilera-irizpideak, aplikatu beharreko mugak, zaintzarako edo aldi baterako kentzeko baldintzak, hala dagokionean, arrazoi pedagogikoek, profesionalek, komunikatiboek, irisgarritasunekoek, osasunekoek edo segurtasunekoek justifikatutako salbuespenak, ez-betetzeen kasuan bidezkoak diren hezkuntza- edo antolaketa-neurriak, hezkuntza-komunitateari jakinarazteko prozedurak eta ikasleei, familiei, irakasleei eta ikastetxeko gainerako langileei aplikatu beharreko bermeak.

Ikastetxeek erregulazio hori aplikatuz hartzen dituzten erabakiek, dekretu honetan eta Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian aurreikusitakoarekin bat datozenean, arau-estaldura nahikoa izango dute, eta printzipio hauen arabera aplikatu beharko dira: proportzionaltasuna, motibazioa, segurtasun juridikoa, adingabearen interes gorena, datu pertsonalen babesa, intimitatearekiko errespetua eta irakasleen funtzio profesionalekiko koherentzia.

7.- Bestetik, ikastetxeko araudiaren apartatu bat ohiko eskola-jarduerak arautzeari buruzkoa izango da. Besteak beste, jarrera edo jokabide hauek azpimarratuko ditu:

a) Ikasteko ohitura positiboak, hala nola ikasteko interesa, lana planifikatzea, zereginak egiteko ardura, jarraikitasuna eta hobetzeko ahalegina.

b) Lankidetzan aritzea ikasgelan, irakasleen irakaskuntza eta ikasleen ikaskuntza erraztuko duten giroa eta lan-baldintzak sustatzeko.

c) Ikasgelako taldekako lanetan zein banaka egiten direnetan lankidetzan eta elkarlanean aritzea.

10. artikulua. Araudia egiteko eta berrikusteko prozesua.

1.- Ikastetxearen nahiz ikasgelaren araudia egiteko prozesua balio handiko hezkuntza-aukera da bizikidetza positiboaren oinarrian dauden balio, jarrera eta jokabideei dagokienez, haiek guztiak lotuta baitaude elkarbizitzarako beharrezkoak diren ikaskuntzekin.

2.- Ikasleei dagokienez, ezinbestekoa dute proaktibo izatea, eta horrek aukera emango die arauak lantzeko prozesuan jokabideei eta haien ondorioei buruz hausnartzeko, arauen arrazoiak azaltzeko, egin nahi dutena hautatu ahal izateko, hautatutakoaren eta haren ondorioaren arteko erlazioa egiaztatzeko eta akordioak eta konpromisoak lortzeko.

3.- Araudia berrikusteko prozesuan, lehentasuna emango zaio elkarbizitza arautzeko eta bizikidetza positiboa garatzeko duen eraginkortasunari.

4.- Gainera, bizikidetza-arauak egiterakoan orientazio orokor hauek hartuko dira kontuan:

a) Inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegitik egingo dira, eta hezkuntza-komunitateko sektore guztien partaidetzarekin, bereziki ikasleenarekin; partaidetza hori benetakoa eta eraginkorra izan dadin beharrezko laguntza materialak eta giza laguntzak bermatu beharko dira.

b) Ikasleek beren jokabidearen gaineko erantzukizuna har dezaten, jokabide hori erregulatzen ikas dezaten eta bizitzan zehar baliagarriak izango zaizkien printzipioak, trebetasunak eta balioak landu ditzaten sustatuko dute arauek.

c) Bultzatu nahi diren jarrera eta jokabide positiboak identifikatu eta zehaztuko dituzte.

d) Ikastetxearen ohiko funtzionamenduan, ikasgeletan eta hezkuntza-jardueraren beste gune eta une batzuetan izaten diren pertsonen arteko gatazkak kudeatzen lagunduko dute.

e) Jokabide-ohitura positiboak sustatu eta garatuko dituzte, gizarte-lankidetzaren eta komunitate-bizitzaren garapena bilatuz.

f) Arauak ez betetzeak zer ondorio dituen adieraziko dute, haiek urratzen dituzten pertsonen egoera eta baldintza pertsonalak kontuan hartuta.

III. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA KUDEATZEKO IKASTETXE-EGITURAK

11. artikulua. Bizikidetza kudeatzeaz zuzenean arduratzen diren antolamendu- eta funtzionamendu-egiturak.

1.- Hauek dira bizikidetza positiboaren kudeaketan funtsezko erantzukizunak dituzten egiturak:

a) Bizikidetzaz arduratuko den BAT taldea. Egitura hau nahitaezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin finantzatzen dituzten unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztietan.

b) Ikastetxeko bizikidetzaren behatokia.

c) Ikasleak eta familiak ordezkatzen dituzten egiturak.

12. artikulua. BAT taldearen osaera eta ongizatearen eta babesaren koordinazioa.

1.- BAT taldeak, gutxienez, kide hauek izango ditu: zuzendaria edo ikasketaburua, irakasle orientatzailea edo aholkularia, hezkidetzaren arduraduna eta ikasleen ongizatearen eta babesaren koordinatzailea.

2.- Lehentasunez, ikasleen ongizatearen eta babesaren koordinatzailea izango da BAT taldearen koordinatzailea. Hala ez bada, koordinazio estua egon beharko da irakasle aholkularien edo orientatzaileen eta aipatutako koordinatzailearen artean.

3.- Ongizatea eta babesa koordinatzeko eginkizunak Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 135. artikuluan aurreikusitakoaren arabera beteko dira.

13. artikulua. BAT taldearen ardurak eta eginkizunak.

1.- BAT taldearen ardura orokorrak:

a) BAT taldea da hezkuntza-komunitatea mobilizatzeaz arduratzen den egitura, eta hezkuntza-komunitateak bizikidetza positiboa proaktiboki eraikitzeko egingo dituen esku-hartzeak gidatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, bai eta indarkeriarekin eta ondoez emozionalarekin lotutako esku hartzeko eskaerei erantzuteaz ere.

b) Bere eginkizunak betetzeko, BAT taldeak aintzat hartuko ditu ikastetxeko bizikidetzaren behatokiaren eta eskola-kontseiluaren barruan egindako balorazioak eta hobetzeko proposamenak. Halaber, ikastetxeko gobernu-organoek hartutako erabakien arabera jardungo du.

c) BAT taldeak bizikidetza positiboa sustatzera bideratuko ditu bere jarduketak. Horretarako, ikastetxeko gobernu-organoak gidatu, orientatu eta aholkatu beharko ditu, gobernu-organo horiek helburu horretarako behar diren baliabideak zentzuz aurreikus eta eman ditzaten. Era berean, BAT taldearen aholkularitzarekin, irakasleek eta gainerako hezkuntza-langileek prebentzio-lana egingo dute, batez ere.

2.- BAT taldearen eginkizunak, sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren esparrukoak:

a) Etengabeko prestakuntza-prozesuaren barruan, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak dituen planetako eta ekimenetako prestakuntza-proposamenetan parte hartzea.

b) Ikasturtean zehar bizikidetza positiboari buruz eta ongizate sozioemozionalari buruz —bai eta ikastetxean indarkeria mota oro prebenitzeko ere— egingo diren jarduketen aurkezpena antolatzea eta koordinatzea; aurkezpen hori ikasleentzat, irakasleentzat, irakasle ez diren langileentzat eta familientzat izango da.

c) Irakasle ez diren langileei eta ikastetxeko familiei zuzendutako prestakuntza bere gain hartzea.

3.- BAT taldearen eginkizunak, diseinuaren eta plangintzaren esparruan:

a) Diseinatzea eta planifikatzea ikasturte bakoitzean garatuko diren bizikidetza- eta hezkidetza-planeko eta tutoretza-planeko helburuak eta jarduerak, bai eta helburu hori lortzeko behar diren baliabideak ere.

b) Bizikidetza positiboaren helburuak eta jarduerak lortzeko irizpideak eta adierazleak ezartzea, zeinak ikastetxeko urteko planean sartuko baitira.

c) BAT taldearen iritziz bizikidetzarekin lotutako ikastetxeko gainerako dokumentuetan egin behar diren aldaketak proposatzea.

d) Ikastetxeak kanpoko eragileekin egin ditzakeen kolaborazioak proposatzea.

4.- BAT taldearen eginkizunak jardueren garapenaren esparruan, zuzendaritza-taldeak gainbegiratuta:

a) Ikasturtean zehar egingo diren esku-hartzeak koordinatzea, ikastetxearen urteko planean aldez aurretik erabakitako plangintzaren arabera.

b) Esku-hartzeen jarraipena egitea, eta, hasieran planifikatutako helburuekiko gertatzen diren desbideratzeak kontuan hartzea. Beharrezkoa izanez gero, zer doikuntza egin behar diren proposatzea.

c) Hezkuntza-mailan kudeatzea indarkeria-egoerengatiko –eskola-jazarpena eta emakumeen aurkako indarkeria barne– esku-hartze eskaerak, ikasle transexualei laguntzea eta ikasleen jokabide suizidekin lotutako egoerei erantzutea, dekretu honetako manuen eta indarrean dauden protokoloen arabera.

d) Bizikidetza kudeatzeko programa espezifikoen garapena dinamizatzea, bai eta bizikidetza positiborako konpromisoena ere, eta egiten diren jarduketak koordinatzea.

e) Ikastetxean eta ikasgeletan bizikidetza positiboa zailtzen duten jokabideei aurre egiteko hezkuntza-erantzuna kudeatzen laguntzea.

5.- BAT taldearen eginkizunak, ebaluazioari eta hobetzeko proposamenei dagokienez:

a) Urteko esku-hartzeak ebaluatzea, aldez aurretik ezarritako irizpideen eta adierazleen arabera.

b) Hobekuntza-proposamenak egitea, ikastetxeko gobernu-organoek kontuan har ditzaten.

14. artikulua. Ikastetxeko bizikidetzaren behatokiaren ardurak, eginkizunak eta osaera.

1.- Ikastetxeko elkarbizitzaren behatokiaren erantzukizun orokorrak.

Ikastetxeko bizikidetzaren behatokia organo aholku-emaile eta parte-hartzailea da, ez betearazlea, eta hauek ditu erantzukizun orokortzat: bizikidetzaren eremuan, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea, ikastetxearen jarduketen azterketa partekatua egiten laguntzea, haren prozesuak eta emaitzak baloratzea eta hobetzeko proposamenak egitea, gobernu-organoek eta BAT taldeak kontuan har ditzaten, baina bere gain hartu gabe esku-hartzeak zuzentzeko, koordinatzeko edo gauzatzeko eginkizunak.

2.- Ikastetxeko bizikidetzaren behatokiaren eginkizunak.

a) Hezkuntza-komunitatearen sektore guztien parte-hartze eta inplikazio aktiboa bultzatzea, batez ere ikasleena.

b) Hezkuntza-komunitatearen sektoreen eskaerak, kezkak eta iradokizunak jasotzea, bizikidetza positiboa hobetzeko alderdiei dagokienez.

c) Ikastetxeko bizikidetzaren egoera orokorra aztertzea, ordezkatutako sektoreen ikuspegia kontuan hartuta, analisi- eta partaidetza-tresna egokien bidez.

d) Planteatutako eskaerekin eta ikastetxeko bizikidetzaren egoera orokorrarekin bat datozen hobekuntza-ildoak proposatzea, hezkidetzako alderdietan eta alderdi inklusiboetan

arreta berezia jarriz.

e) Hobekuntza-jarduerak ikastetxearen urteko planean sartzea proposatzea, ondoren onartzeko.

f) Hobekuntza-proposamenetan elementu proaktiboetan oinarritutako jardunbide errestauratiboak lehenestea.

g) Bizikidetza-plana eta hezkidetza-plana berrikustea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

h) Jarraipena egitea eta proposatutako hobekuntza-ildoak ebaluatzea.

3.- Ikastetxeko bizikidetzaren behatokiaren osaera, antolamendua eta barne-funtzionamendua.

a) Ikastetxe bakoitzak bere ezaugarri, interes eta beharrei ondoen egokitzen zaien osaera ezar dezake, kontuan izanik hezkuntza-komunitateko sektore guztiek parte hartzeko organo bat dela. Horretarako, oreka egongo da sektore bakoitza osatzen duten pertsonen kopuruan. Bizikidetzaren behatokiaren osaeran Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrerako ikasleak ere sartuko dira.

b) Bizikidetzaren behatokiaren funtzionamendu-arauak organo horren barruan erabakiko dira. Edonola ere, bizikidetzaren behatokiak bere kide guztiak ados jarrita hartuko ditu erabakiak, eta hobetzeko egindako balorazioak eta ekarpenak biltzen eta harmonizatzen saiatuko da.

15. artikulua. Ikasleen ordezkaritza bizikidetza positiboaren kudeaketaren antolamenduan eta funtzionamenduan.

1.- Ikasleen ordezkaritza beharrezko bide instituzionala da ikasleen interesak, kezkak eta proposamenak modu eraginkorrean integra daitezen eskola-bizikidetzari buruzko erabakiak hartzean eta bizikidetza positiboaren kudeaketan. Beren ordezkaritza-organoen bidez, ikasleek hezkuntza-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen dute, eta elkarrizketarako, negoziaziorako eta erantzukidetasunerako balioak sustatzen dituzte.

2.- Ikasleak egitura hauen bidez egongo dira ordezkatuta: ikasgelako ordezkariak, ikastetxeko ordezkarien batzordea eta bizikidetzaren behatokiko eta eskola-kontseiluetako ikasleen ordezkariak.

3.- Ikasleak ordezkatzeko egiturek helburu hauek izango dituzte:

a) Ikasgelako eta ikastetxeko arauak egiten eta berrikusten parte hartzea eta parte hartzen laguntzea ikaskideei, tutorearen eta orientazioko irakasleen gidaritzapean.

b) Bizikidetza positiboa eraikitzen modu proaktiboan laguntzea eta haren kudeaketan taldeko zein banakako egoeren ondorioz sor daitezkeen oztopoak gainditzeko alternatibak planteatzea.

c) Ikaskuntzetan, ebaluazioa barne, ikaskideen inplikazioa eta konpromisoa hobetzeko egoki iritzitako gaiak proposatzea.

d) Kideek bizikidetza hobetzeko ekintza eta programa espezifikoetan parte har dezaten bultzatzea, barne direla berdinen arteko laguntza-sistemetako modalitateren batekoak.

e) Eskola-espazioen banaketa hobea proposatzea, bai eta jolas-denboraren, jantoki-denboraren eta eskola-antolamenduko beste espazio eta denbora batzuen antolaketa hobea ere.

f) Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak proposatzea, bai eta haien antolamendurako hobekuntzak ere.

g) Proiektuen, jardunaldien eta ekitaldien diseinuan eta garapenean parte hartzea.

h) Ikasgeletan ikasleek egiten dituzten proposamenak gainerako partaidetza-mailetara bideratzea.

i) Ikastetxean bizikidetza hobetzeko ekintzak ezagutzea eta ikasleen artean zabaltzea.

16. artikulua. Familien ordezkaritza bizikidetza positiboaren kudeaketaren antolamenduan eta funtzionamenduan.

1.- Ikasleen familiek lagunduko dute ikastetxeko hezkuntza-giroa hobetzen eta indarrean dagoen araudian eta eremu horrekin lotutako ikastetxeko gainerako dokumentuetan araututako bizikidetza positiboaren alderdiak betetzen. Horretarako, seme-alabek nahiz tutoretzapekoek ikasgelako eta ikastetxeko bizikidetza-arauak errespeta ditzaten bultzatuko dute, bai eta bizikidetza positiboari dagokionez ikastetxeko pertsona heldu arduradunek eta gobernu-organoek ematen dituzten orientabideak eta erabakiak errespeta ditzaten ere.

2.- Ikastetxeko bizikidetza-planak neurriak jasoko ditu familiek ikastetxeko bizitzan parte har dezaten sustatzeko. Parte-hartze hori ikasleen guraso-elkarteen, elkarbizitzaren behatokiaren eta familiei kalitatezko parte-hartzea bermatzen dieten beste ordezkaritza-modu batzuen bidez bideratuko da.

IV. KAPITULUA: BIZIKIDETZA POSITIBOA GARATZEKO OHIKO ESKU-HARTZEAK KUDEATZEA ETA HOBETZEA.

1. ATALA: IKASTETXEEN ESKU-HARTZEAK BIZIKIDETZA POSITIBOAREN ESPARRUAN.

17. artikulua. Ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspuntu errestauratiboa bizikidetza positiboaren esparruko esku-hartzeetan.

Ikastetxeek estrategiak eta prozedurak garatuko dituzte bizikidetza positiboa kudeatzeko, ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspuntu errestauratiboa izanda. ezaugarri orokor hauekin bat etorriz:

1.- Jardunbide errestauratiboak hezkuntza-prozesuak dira eta hezkuntza-komunitatean tratu oneko harremanak indartzera bideratuta daude. Elkarrizketa baliatzeak, erantzukizunak

hartzeak eta eragindako kaltea erreparatzeak lagundu egiten dute kaltetutako loturak lehengoratzen eta gatazkak ikasteko aukera bihurtzen.

2.- Ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspegi leheneratzailea jarduketa proaktibo eta prebentiboetan oinarritzen dira nagusiki. Horretarako, ikastetxeek ikasle bakoitzaren egoera pertsonala eta sozioemozionala, haren ingurunea eta bien arteko interakzioak ezagutzea sustatuko dute, hezkuntza-erantzunak bizikidetza positiboari eragiten dioten zailtasunetara egokitzeko.

18. artikulua. Hezkuntza-arloko esku-hartzeak diseinatzean kontuan hartu behar diren jardunbide errestauratiboak.

Jardunbide errestauratiboak continuum batean zehar koka daitezke. Continuum horretan sartzen dira, alde batetik, giza harremanak indartzera, komunitate kohesionatuak sortzera eta taldeko kide izatearen sentimendua sortzera bideratutako prebentziozko jarduerak, eta, bestetik, hondatu direnean harremanak konpontzera eta ongizate sozioemozionala bultzatzera bideratutako jardunbide erreaktiboak.

19. artikulua. Prebentziozko jardunbideak, hezkuntza-arloko esku-hartzeak diseinatzeko estrategia gisa.

Prebentziozko jardunbideek, izaera proaktiboa dutenek, funtsezko lekua izan beharko dute hezkuntzako esku-hartzean, eta, modu integratuan, hauetara bideratu beharko dira: komunitatea sortzera, entzuteko eta zaintzeko kultura garatzera, bizikidetzan oinarritutako hezkuntzara eta gaitasun sozioemozionalera, eta ikasleen protagonismo aktiboa sustatzera.

20. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: komunitatea sortzea.

1.- Hezkuntza-komunitatea eraikitzeak berez dakar kidetasun-sentimendua sortzea hura osatzen dutenen artean. Zenbat eta lotura handiagoa izan ikasgela bakoitzeko ikasleen, irakasleen, familien, irakasle ez diren langileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean, orduan eta aukera gehiago egongo dira ingurune seguru bat eraikitzeko eta eskola-jazarpeneko egoerak prebenitzeko.

2.- Prebentziozko estrategiek hezkuntza-komunitateko kideentzako jarduerak eta programak izango dituzte ardatz, hala nola harrera-jarduerak, ikastetxeko bizikidetza-egituretan parte hartzea, prestakuntza, arauak sortzea eta hausnarketa morala egiteko jarduerak.

3.- Jarduera eta programa horiek garatzean, inklusioa, ikasleen parte-hartze ekitatiboa eta taldeko kide izatearen sentimendua bermatzen duten dinamikak sustatuko dituzte ikastetxeek.

21. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: entzuteko eta zaintzeko kultura sortzea.

1.- Ikastetxeek entzuteko eta zaintzeko kultura sustatuko dute, zeina bideratuta baitago elkarbizitza positibora, gaitasun sozioemozionalaren garapenera, ikaskuntza dialogikora eta zaintzaren pedagogiara. Horretarako, zenbait trebetasun bultzatuko dituzte, hala nola laguntza eskatzea eta eskaintzea, tratu ona ematea eta jasotzea, aktiboki entzutea, asertibotasunez eta enpatiaz jardutea, eta autoestimua eta erresilientzia indartzea, ikasleen ongizate emozionala

sustatzeko.

2.- Kide izatearen sentimendua eta laguntza-kultura bultzatzeko, eta ikasleen behar pertsonal eta sozioemozionalei ematen zaien arreta hobetzeko, ikastetxeek askotariko komunikazio-bide irisgarri eta seguruak eskainiko dituzte. Multzo horretan gutxienez hauek sartuko dira:

a) Banakako tutoretzak.

Tutoretza-ekintzak jarraipen indibiduala eta laguntza pertsonalizatua eta taldekoa konbinatuko ditu, ikasle bakoitza bere indibidualtasunean eta aniztasunean kontuan har dadin.

Ohikoak eta sistematikoak izango dira, eta horrek hezkuntza-taldeei aukera emango die zailtasun pertsonaleko egoerak edo pertsonen arteko zailtasun-egoerak errazago detektatzeko eta jorratzeko. Era berean, modu puntualago batean ere egin ahal izango dira, tutoreak baloratutako laguntza-premiaren arabera, edo ikasleak berak edo haren familiak adierazitako laguntza-premiaren arabera, taldeko hezkuntza-taldearekin koordinatuta.

Tutoreek nahiz ikasleekin dezenteko lotura duten beste irakasle batzuek egin ahal izango dituzte, tutorearekin koordinatuta, ikastetxeko orientazio-taldearen laguntzarekin.

Prestakuntza duten ikasleek egin ahal izango dituzte, baldin eta berdinen arteko laguntza-sistemen barruan tutoretza-lanak egiten badituzte, ikastetxeko arduradunek gainbegiratuta.

b) Erreferentziazko irakaslea.

Erreferentziazko irakaslearen irudia, salbuespenez, ondoez emozionaleko egoera bat detektatzen denean erabiliko da, ikasleak bere premiak, iritziak eta bizipenak konfiantza-giro batean adierazi ahal izan ditzan.

Ikasleak aukeratuko du, BAT taldearen onespenarekin, eta, ahal dela, emozioak entzuteko eta erregulatzeko gunean (*Arnasgune*) egingo dira topaketak.

Hauek izango dira haren funtzio nagusiak: laguntza eta konpainia emozionala ematea entzute aktiboaren bidez; ikaslearen egoerari buruzko informazioa eskuratzea; informazio garrantzitsua biltzea eta BAT taldeari helaraztea, hezkuntza-erantzuna orientatzeko, kidetasun-sentimendua indartzeko eta, jokabide suiziden kasuan, ikasleari dagokion protokoloaren arabera segurtasun-plana egiten laguntzeko.

c) Beste ezagutza-, detekzio- eta jarraipen-estrategia batzuk. Koordinazio-bilerek, autotxostenek eta heteroformeek, behaketa dialektikoak eta antzeko beste tresna batzuek aukera emango dute ikasleak hobeto ezagutzeko, arrisku-egoerak detektatzeko eta hezkuntza-erantzuna haien ezaugarrietara eta testuingurura egokitzeko.

22. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: bizikidetzan eta gaitasun sozioemozionalean heztea.

1.- Bizikidetza positiboa ikaskuntza-eremu bat da, gaitasun pertsonalaren, sozialaren eta ikasten ikastearen garapenarekin eta herritarren gaitasunaren garapenarekin konektatzen dena,

eta ikastetxeko plangintza-dokumentuetan integratu beharko da, eta zeharka, progresiboki eta ikasleen adinera eta heldutasunera egokituta garatu beharko da hezkuntza-jardueran.

2.- Bizikidetza positiboa zuzenean garatuko da tutoretza-planaren eta banakako tutoretzen bidez. Tutoretzak tutoreak egingo ditu, irakasle aholkularien edo orientatzaileen aholkularitzarekin eta laguntzarekin. Era berean, zeharka integratuko da arlo, ikasgai edo esparru guztietan, bai eta ikastetxeak zehazten dituen eskola-jarduerako beste une eta espazio batzuetan ere.

23. artikulua. Prebentziozko jardunbideak: ikasleei protagonismo aktiboa ematea. Berdinen arteko laguntza-sistemak (BLS, gaztelaniaz SAI), hezkuntza-arloko esku-hartzeetarako prebentzio-estrategia gisa.

1.- Berdinen arteko laguntza-sistemak ikasleen partaidetzarako egiturak dira, eta bereziki garrantzitsuak dira bizikidetza hobetzeko. Askotariko profilak dituzten ikasleez osatutako sareak dira, eta harreman positiboak sortzen laguntzea, gatazkak prebenitzea eta ikasgeletan eta ikastetxe osoan bizikidetza indartzea dute helburu. Ikasleek egitura horietan parte-hartze zuzena eta autonomoa izango dute, hargatik eragotzi gabe dagokion hezkuntza-gainbegiratzea.

2.- Bizikidetza-planean sartuta, ikastetxeek berdinen arteko laguntza-sistemen (BLS) modalitate baten edo batzuen sorrera, jarraipena eta jarraitutasuna sustatuko dute. Haien artean, besteak beste, harrera- eta laguntza-sistemak sartu ahal izango dira, hala nola harrera-taldeak eta laguntza-sistemak, esaterako, jolastokiko espazioetako ikasle laguntzaileak edo antzeko beste ekimen batzuk.

24. artikulua. Jardunbide erreaktiboak, gatazka-egoeretan esku-hartzeak diseinatzeko eta eragindako kaltea erreparatzeko estrategia gisa.

1.- Gatazkak eguneroko errealitatea dira ikastetxeetan, eta egoera horiek modu positiboan kudeatzen ikasteko eta irakasteko aukera ematen dute. Kudeaketa horrek berekin dakar tartean diren pertsonek entzuten zaiela sentitzea, eta kalteren bat eragin dutenek beren egintzen ondorioak aitortzea, konpromisoak hartzea, eragindako kaltea erreparatzea eta etorkizunean beren jokabidea aldatzea.

2.- Ongizate sozioemozionalarekin lotutako arrisku-egoerak identifikatzen direnean edo gatazkak sortzen direnean, berehala esku hartu behar da haiek kudeatzeko eta okerrera egitea saihesteko.

3.- Azkar esku hartzeko, ikastetxeek prebentziozko detekzio-sistema bat izan beharko dute, irakasleak, familiak, irakasle ez diren langileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak aktiboki inplikatuko dituena gerta litezkeen arrisku-egoerei antzemateko. Sistema horren oinarria kide izatearen sentimendua sortzea eta entzuteko konfiantzazko kanalak egotea izango da, hezkuntza-komunitate osoari informazio garrantzitsua eman ahal izateko, egoera horiei goiz eta eraginkortasunez heldu beharrez.

4.- Jardunbide erreaktiboen artean sartu ahal izango dira, hala dagokionean, elkarrizketak, solasaldiak, bitartekaritza-prozesuak, bilera errestauratiboak, erreparazio-lanak eta dekretu

honekin bateragarriak diren beste hezkuntza-estrategia batzuk.

25. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: elkarrizketa errestauratiboa.

1.- Elkarrizketa errestauratiboa banaka egingo da gatazka batean inplikatutako pertsonekin. Entzute aktiboaren bidez, haien ikuspuntua ezagutu ahal izango da, bai eta haien premiak ulertu, gertatutakoari buruzko kontzientzia hartzen lagundu, eta erantzukizunak bere gain hartzen eta erreparaziora eta bizikidetza hobetzera bideratutako erabakiak hartzen lagundu ere.

2.- Elkarrizketa errestauratiboa biktimen eta jokabide erasotzaileak dituzten ikasleen arteko nagusitasun-sumisio egoerak desaktibatzeko ere erabili ahal izango da; egoera horiek batzuetan ikusleen presentzia pasiboarekin gertatzen dira. Harreman-dinamika hori aldatzea izango da helburua, inplikatutako pertsonei lagundu nahi baitzaie tratu txarrak eragiten dituzten jokabideen ordez errespetuan, erantzukizunean eta kaltearen erreparazioan oinarritutako beste jokabide batzuk ezartzen.

3.- Elkarrizketa egiteko ardura duten pertsonek hezkuntza-komunitatearen aintzatespena eta legitimazioa izan beharko dute.

26. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: solasaldi errestauratiboa.

1.- Eskola-eremuan, solasaldi errestauratiboak baliabide baliagarriak dira eguneroko gatazkei heltzeko. Jardunbide horrek gatazkan zuzenean eragindako pertsonak eta haien kudeaketa errazten dutenak inplikatzen ditu, eta prozesua bideratzen du erantzukizunak hartzera, kaltea erreparatzera eta inplikatutako pertsonen parte-hartze aktibora.

2.- Elkarrizketa errestauratiboak gertatzen laguntzen duten pertsonek hezkuntza-komunitatearen aintzatespena eta legitimazioa izan beharko dute prozesuaren erregulazioan laguntzeko eta gatazka konpontzen laguntzeko.

27. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: eskola-bitartekotza.

1.- Bitartekotza gatazkak konpontzeko prozesu boluntario bat da, non pertsona batek edo batzuek gatazkan dauden bi alderdiren edo gehiagoren artean esku hartzen duten, elkarrizketa-bideak errazteko eta alderdi guztientzat akordio on bat lortzen laguntzeko.

2.- Bitartekaritza eta solasaldi errestauratiboak erabiltzeko mugak:

a) Bitartekaritza-prozesuak eta solasaldi errestauratiboak bakar-bakarrik erabili ahal izango dira inplikatutako alderdien arteko oreka-printzipioa bermatzen den kasuetan. Inola ere ez dira erabiliko eskola-jazarpeneko, emakumeen aurkako indarkeriako egoeretan edo nagusitasuneko, desberdintasuneko edo defentsa-gabeziako beste edozein egoeratan.

b) Gainerako egoeretan, jardunbide errestauratiboetarako ezarritako irizpide orokorrak aplikatuko dira.

28. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: bilera errestauratiboa.

1.- Bilera errestauratiboak pertsonen arteko gatazketan erabili ahal izango dira, baldin eta

gatazka horietan inplikatutako pertsonek aukera badute gatazka horiei elkarrizketaren, akordioaren eta elkarren erreparazioaren bidez heltzeko.

2.- Ordainketa borondatezkoa izango da, eta alderdiak prest egon beharko dira errestaurazio-prozesuan parte hartzeko, indarkeriarik egon den edo ez kontuan hartu gabe.

3.- Elkarrizketa errestauratiboekin eta bitartekaritzarekin elementu komunak dituzten arren, bilera errestauratiboak jardunbide formalagoak dira, eta talde bideratzaileak prestakuntza espezifikoa izatea eskatzen dute. Haietan parte hartu ahal izango dute gatazkak eragindako pertsonek, inplikatutako ikasleen tutoreek, zuzendaritza-taldeko kideren batek eta prozesua errazteko ardura duten pertsonek, zeinek prestakuntza egokia izan beharko baitute.

4.- Jardunbide errestauratibo horrek komunitatea inplikatzen du bere kide batzuei eragiten dien gatazka bat ebaztean, pertsona batzuek talde bereko beste kide batzuei kalte egin dietenean.

5.- Egin aurretik, bileraren egokitasuna baloratuko da, inplikatutako aldeekin banakako elkarrizketak eginez, prozesuan parte hartzeko, erantzukizunak hartzeko eta adostasunerantz eta elkarren erreparaziorantz aurrera egiteko prest dauden egiaztatzeko.

29. artikulua. Jardunbide erreaktiboak: beste estrategia batzuk.

1.- Jardunbide erreaktiboen artean sartu ahal izango dira, egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera, berdinen arteko laguntza-sistemak, erreferentzia-taldetik kanpoko ikaskuntza-jarduerak eta jokabide desegokiarekin lotutako zereginak, baldin eta dekretu honekin bateragarriak badira, hezkuntza-helburua badute eta ukitutako pertsonen eskubideak, segurtasuna eta duintasuna errespetatzen badituzte.

30. artikulua. Berdinen arteko laguntza-sistemak jardunbide erreaktibo gisa.

1.- Parte hartzen duten ikasleek profil prosoziala eta proaktiboa izan beharko dute. Jardunbide horiek prebentziozkoak baino formalagoak dira, eta ikasleen prestakuntza espezifikoa eskatzen dute, bai eta programaren koordinazio-taldearen gainbegiratze sistematiko eta jarraitua ere. Era berean, konpromiso eta erantzukizun moral handiagoa eskatzen dute gatazka-egoeren aurrean eta eragindako kaltea erreparatzeko prozesuen aurrean. Berdinen arteko laguntza-sistemen artean, ikasle laguntzaileak, bitartekaritza, tutoretza eta (ziber) mentoretza nabarmendu behar dira; azken kasu horretan, hautatutako ikasleek, gainera, baliabide teknologikoen erabilerari buruzko oinarrizko ezagutzak izan beharko dituzte, eta sare sozialei eta Interneti buruz ere bai.

2.- Ezin izango dira erabili kasu hauetan: eskola-jazarpena, emakumeen aurkako indarkeria, alderdien arteko desoreka, gatazkari bide errestauratiboetatik heltzeko jarrerarik edo baldintzarik eza, bizikidetzari kalte larria egiten dioten edo dagokion prozedura-bidetik izapidetu behar diren jokabideak, aurretiazko esku-hartze ez-eraginkorrak edo ikasgelan gertatzen diren disrupzio-egoerak.

31. artikulua. Erreferentzia-taldetik kanpoko ikaskuntza-jarduerak.

1.- Bizikidetza positiboa nahasten duten jokabideek eragindako ikasleei —batez ere jokabide disruptiboek, zeinak dekretu honen 63. artikuluan deskribatzen baitira, eragiten dituzte horrelako jokabideak—, bizikidetza positiborako espazioan esleitu ahal izango zaizkie ikaskuntza-jarduerak, erreferentzia-taldetik kanpo.

32. artikulua. Jokabide desegokiarekin zerikusia duten zereginak egitea.

1.- Zeregin horiek helburu hezigarria izan behar dute; horrez gain, eragindako pertsonei edo komunitateari zuzenean eragindako kaltea konpontzen lagundu behar dute, eta berehalakoak eta jokabide desegokiarekiko proportzionalak izan behar dute. Egitea erabaki duten irakasleek gainbegiratuko dituzte zuzenean zeregin horiek.

33. artikulua. Jardunbide errestauratibo erreaktiboak aplikatzeko prozedura.

1.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jardunbide errestauratibo erreaktiboen helburua izango da ikaslea bere jokabidearen inpaktuaz jabetzea, erantzukizunak bere gain hartzea, egindako kaltea konpontzea eta bere jokabidea aldatzea.

2.- Jardunbide horiek ez badira nahikoak eragindako kaltea konpontzeko edo jokabidea birbideratzeko, dekretu honen VII. kapituluko II. eta III. ataletan aurreikusitako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatu ahal izango dira, osagarri gisa.

34. artikulua. Gatazka-egoeretan hezkuntzako esku-hartzeak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko eta eragindako kaltea erreparatzeko irizpide orokorrak.

1.- Esku-hartzeen diseinuak irizpide hauek izango ditu: analisi partekatua, informazio objektiboa biltzea eta testuinguruari arreta ematea. Horretarako, hezitzaile arduradunek, modu koordinatuan, askotariko iturrietan, datuetan eta ebidentzietan oinarritutako estrategiak eta prozedurak ezarriko dituzte, iritzietan, aurreiritzietan edo joeretan oinarritutako balorazioak saihestuz.

2.- Ikastetxeek barneko komunikazio-kanal seguruak izango dituzte, ikasleak babesteko eta arrisku- edo indarkeria-egoerak goiz detektatzen laguntzeko, bereziki eskola-jazarpeneko kasuetan. Informazioa, ahal dela, planifikatutako eta ohiko hezkuntza-jardueran integratutako prozeduren bidez bilduko da.

3.- Arreta berezia jarriko zaie arriskuko eta zaurgarritasuneko egoerei, pertsonalak zein ebolutiboak izan, nahiz ikastetxearen testuinguruari lotuak izan. Horretarako, ikastetxeek datu eta ebidentzia objektiboetan oinarritutako azterketa- eta jarraipen-tresnak erabili ahal izango dituzte.

4.- Hezkuntzako ohiko esku-hartzeek lortzen ez badute bizikidetza positiboa zailtzen duten jokabideak birbideratzea, hezkuntza-taldeek, BAT taldearekin lankidetzan, egoeraren azterketa sakona egingo dute, eta egoera hori lehengoratzeko eta zailtasun berriak prebenitzeko behar diren neurriak hartuko dituzte. Horretarako, familiaren laguntza izango dute, eta, hala dagokionean, eskumena duten hezkuntza-, gizarte-, osasun-, polizia- edo justizia-zerbitzuena.

5.- Esku-hartzeen jarraipena modu koordinatuan egingo da, bat etorriz ikasleen egoera

sozioemozionalarekin, taldearen harremanekin eta kasuaren eta testuinguruaren ezaugarriekin. Jarduketak ikuspegi sistemiko-ekologikora eta ikuspegi lehineratzailera egokituko dira.

6.- Talde arduradunek aurreikusi diren helburuen eta lortu diren emaitzen arteko egokitzapen-maila ebaluatuko dute, aldez aurretik ezarritako irizpide eta adierazleen bidez, eta, hala badagokio, esku-hartzea birbideratzeko beharrezkoak diren egokitzapenak adostuko dituzte.

35. artikulua. Bizikidetza positiborako espazioa.

1.- Ikastetxeek bizikidetza positiboko gune bat antolatu ahal izango dute bizikidetzarako programa espezifikoak garatzeko, berdinen arteko laguntza-sistemak barne, bat etorriz bizikidetza-planean aurreikusitako baliabide material, pertsonal eta antolakuntzakoen plangintzarekin.

2.- Espazio hori erreferentzia-taldetik kanpoko ikaskuntza-jarduerak esleitzen zaizkien ikasleei hezkuntza-arreta emateko ere erabili ahal izango da, bereziki jokabide disruptiboen ondoriozko egoeretan, dekretu honen 63. artikuluaren arabera. Nolanahi ere, helburu errestauratiboa izango du, eta erraztasunak emango ditu gogoeta egiteko, erantzukizunak hartzeko eta jokabide positiboetarantz aldatzeko.

3.- Aurreko atalean aurreikusitako kasuetan, bizikidetza-planak zehaztuko ditu, gutxienez, zein diren hezkuntza-arretako irizpideak, irakasleek eta orientazio-taldeak aldez aurretik diseinatutako hausnarketa-jarduerak, irakasle arduradunak eta beharrezkoak diren material didaktikoak.

36. artikulua. Entzuteko eta emozioak erregulatzeko espazioa (*Arnasgunea*).

1.- Ikastetxeek antolaketa-baliabide egokiak izango dituzte ikasleen entzute eta erregulazio emozionalerako espazioak bermatzeko. Espazio horiek *Arnasgune* izeneko gune espezifiko gisa antolatu ahal izango dira, ondoeza adierazten, emozioak erregulatzen eta hezkuntza-laguntza ematen laguntzeko, beharrezkoa den egoeretan.

2.- Espazio horietan, segurtasuneko, diskrezioko, konfidentzialtasuneko eta hezkuntza-laguntzako baldintza egokiak bermatu beharko dira.

3.- Espazio horiek erabili ahal izango dira, erreferentziazko irakaslearen edo ikastetxearen ardura duen beste pertsona heldu baten laguntzarekin, ikasleek entzuteko, emozioak erregulatzeko edo banakako hezkuntza-laguntza emateko ingurunea behar dutenean, bereziki kasu hauetan:

a) Ikasleen jokabide suizidak, eskola-jazarpena edo emakumeen aurkako indarkeria direla-eta protokolo bat irekita dagoenean.

b) Behar pertsonal eta sozioemozionalengatik laguntza eskatu duten ikasleen kasuan.

c) Ikasleak laguntza eskatzen duenean babesgabetasun-, indarkeria- edo arrisku-egoera baten berri emateko.

d) Ikaslea krisi emozionaleko egoera batean dagoenean edo berehalako hezkuntza-laguntza behar duenean.

4.- Ikastetxeko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian, espazio horiek erabiltzeko irizpide orokorrak arautuko dira, bizikidetza-planean aurreikusitakoaren arabera eta, hala badagokio, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak onartzen dituen orientabideekin bat etorriz.

2. ATALA: HEZKUNTZAREN ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILAK BIZIKIDETZA POSITIBORAKO EGINGO DITUEN ESKU-HARTZEAK.

37. artikulua. Bizikidetza positiboa sustatzeko baliabideak, neurriak eta laguntzak

1.- Gizarte- eta hezkuntza-komunitateari zuzendutako baliabideak, neurriak eta laguntzak

a) Sentsibilizazio-kanpainak.

b) Biltzarrak, jardunaldiak edo topaketak antolatzea.

c) Plan-ereduak.

d) Jarduteko protokoloak eta gidak.

e) Bizikidetza positiboari buruzko txostenak eta analisi-dokumentuak.

2.- Irakasleei eta ikastetxeetako gainerako hezitzaileei zuzendutako baliabideak, neurriak eta laguntzak.

a) Bizikidetza positiboari buruzko mintegiak eta lantaldeak, hezkuntza-laguntzako zerbitzuen bidez.

b) Bizikidetza positiboaren arloko lanbide-prestakuntza eta -hobekuntzarekin zerikusia duten banakako ikastaroak, bai eta hezkuntza-arloko eskumena duen sailak zehazten dituen aldizkakotasunarekin eta modalitateekin zerikusia dutenak ere.

c) BAT taldeentzako prestakuntza-jarduketa komunak egitea, aldizka eta modu sistematizatuan.

d) Ikastetxeetako ongizatearen eta babesaren koordinatzaileei prestakuntza espezializatua ematea, hasierakoa eta etengabea, haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideei buruz.

3.- Materialak eta tresnak. Aurreko atalean araututako jarduketak kalitatez eta eraginkortasunez garatzen laguntzeko, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak material eta tresna hauek jarriko ditu eskura:

a) Bizikidetza positiboa kudeatzeko materialak eta laguntza-tresnak biltzen dituen webgune espezifiko bat.

b) Autoebaluaziorako tresna bat, bizikidetza positiboa garatzeko eta ikasleen eskola-jazarpeneko eta jokabide suizidako egoeretan jarduteko protokoloen kudeaketan emandako

erantzunaren kalitatea ziurtatzeko.

c) Bizikidetzaren egoerari buruzko azterlanak, parte hartzea erabakitzen duten ikastetxe guztiei datuak emateko, bai bizikidetza positiboaren, ikasleen ongizate sozioemozionalaren eta eskola-jazarpenarekin lotutako aldagaien esparruetan duten egoera espezifikoari buruz, bai eta hobetu daitezkeen ildoei buruz ere.

4.- Beste instituzio eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzea. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak lankidetza sustatu ahal izango du Euskal Hezkuntza Sisteman eta ikastetxeetan bizikidetza positiboa eraikitzen jarraitzeko beharrezkotzat jotzen dituen instituzio, organismo edo entitateekin.

38. artikulua. Jarduketak garatzea, ebaluatzea eta hobetzea.

1.- Hezkuntza-arloko eskumena duen sailak ekintzak sustatu eta planifikatuko ditu bizikidetza positiboaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Euskal Hezkuntza Sisteman eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan.

2.- Hezkuntza-arloko eskumena duen sailak informazioa eskatu ahal izango die eskola-bizikidetza hobetzen lagundu duten organismo, erakunde eta entitateei.

3.- Jardueren jarraipenetik eta ebaluaziotik ateratako ondorioetatik abiatuta, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak dagozkion xedapenak emango ditu, Euskal Hezkuntza Sistemako bizikidetza hobetzen lagundu dezaketen ekintzetan txertatzeko, bere eskumenen esparruan.

V. KAPITULUA: IKASLEEN ETA HEZKUNTZA-KOMUNITATEKO GAINERAKO SEKTOREEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

39. artikulua. Hezkuntza-komunitateko sektore guztien eskubideen eta betebeharren oinarri diren printzipio orokorrak.

1.- Indarrean dagoen hezkuntza-araudiak hezkuntza-jarduerari esleitzen dizkion helburuen eta printzipioen esparruan gauzatuko dituzte hezkuntza-komunitateko sektoreek eskubideak eta betebeharrak.

2.- Dekretu hau aplikatzeko orduan, adingabeen interes gorenak izango du lehentasuna kasu guztietan, egon daitekeen beste edozein interes legitimoren gainetik; interes legitimo hori indarrean dagoen araudian jasotako interpretazio-printzipio eta -irizpide orokorren arabera ulertuko da.

3.- Ikasle guztiek dute ikastetxeetako hezitzaileen berehalako arreta jasotzeko eskubidea, indarrean dagoen araudian araututako baldintzetan. Ikasle bat arrisku-egoeran dagoela edo babesgabezia duela detektatzen dutenean, indarkeria-egoerak barne Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean zehaztutakoaren arabera, hezitzaileek adingabeari behar duen berehalako arreta eman behar diote; hau da, jardun beharra daukate haien eskumen-esparruari badagokio, eta agintari eskudunei edo gertuen dituen eragileei jakinarazteko betebeharra.

Gainera, gertatutakoaren berri eman beharko diete adingabearen legezko ordezkariei, eta, beharrezkoa bada, gizarte-zerbitzuei, Fiskaltzari edo agintaritza judizialari.

4.- Hezkuntza-arloko eskumenak dituen sailak eta ikastetxeek zainduko dute hezkuntza-komunitateko kide guztien eta, bereziki, ikasleen eskubideak errespetatzen direla eta betebeharrak betetzen direla. Zehazki, hezkuntza-arloko eskumenak dituen sailak eta ikastetxeetako zuzendari eta titularrek segurtasuna gainbegiratuko dute langileak kontratatzean, eta kontrolatuko dute irakasleek, laguntzaileek, zerbitzuak emateko kontratatutako langileek eta ikastetxean lan egin ohi duten edo laguntzen duten beste profesional batzuek (ordainduak izan edo ez) indarreko araudian aurreikusitako nahitaezko ziurtagiriak aurkezten dituztela.

5.- Ikastetxeen autonomia-tartearen barruan, antolamendu- eta funtzionamendu-araudiek garatu ahal izango dituzte dekretu honetan araututako eskubideak benetan baliatzen direla eta betebeharrak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren prozedurak eta tresnak.

6.- Hezitzaileek isilpean eta konfidentzialtasunez gorde behar dituzte beren lanbide-jardueran ari diren bitartean ezagutzen dituzten ikasleen edo haien familien datu pribatu guztiak.

2. ATALA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

40. artikulua. Ikasleen eskubideen eta betebeharren oinarri diren printzipio orokorrak.

1.- Ikasle guztiek eskubide eta betebehar berberak dituzte, alde batera utzi gabe adinaren, heldutasunaren eta inguruabar pertsonalen ondoriozko modulazioak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.- Ikasle guztiek dute, beren adinak eta heldutasunak uzten dieten neurrian, aitortzen zaizkien eskubideak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, bai eta indarreko ordenamendu juridikoan hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen zaizkienak ezagutzeko eta eskubide horiek baliatzeko eta errespetatzeko prestakuntza jasotzeko eskubidea eta betebeharra ere.

3.- Ikasle guztiek erantzukizunez bete behar dituzte beren betebeharrak, bai eta beren eskubideak errespetuz baliatu ere. Eskubide bat banaka edo taldean baliatzeak berekin dakar gainerakoen eskubideak errespetatzeko betebehar korrelatiboa.

4.- Zuzendaritzak, irakasleek eta hezkuntza-komunitateko gainerako hezitzaileek bermatuko dute ikasleek beren eskubideak baliatzen dituztela eta beren betebeharrak betetzen dituztela, dituzten funtzioen eta erantzukizunen arabera.

5.- Atal honen xede dira ikasleen eskubide eta betebehar orokorrak, indarrean dagoen arauditik datozenak, bai eta bizikidetzaren esparruko eskubide eta betebehar espezifikoak ere.

41. artikulua. Ikasleen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, bizikidetzaren esparrukoak barne.

1.- Ikasle guztiek eskubide hauek izango dituzte: ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea; ideologia-askatasunerako eskubidea; parte hartu, elkartu eta batzarrak egiteko eskubidea; adierazpen-askatasunerako eskubidea; eragiten dieten erabakietan entzunak izateko eskubidea, eta haien eskubideak defendatzeko eskubidea. Halaber, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan onartutako eskubideen titular ere badira, zeinetan bereziki nabarmentzen baitira osotasun fisiko eta psikikorako eta duintasun pertsonalerako eskubidea, bai eta hezkuntza inklusibo eta integrala izateko eskubidea ere.

2.- Ikasle guztiek edozein indarkeria motatatik libre bizitzeko eskubidea dute beren nortasuna askatasunez garatu ahal izango dutela ziurtatzeko; horretarako, babes integraleko neurriak ezarriko dira haien bizitza garatzen den esparru guztietan, hala nola sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa.

3.- Ikasle guztiek beren gain hartu behar dituzte, eta bete, onartzen zaizkien eskubideen titulartasunari eta erabilerari berez dagozkien edo haietatik sortzen diren betebehar, obligazio eta erantzukizunak, gainerako pertsonek ere beren eskubideak baliatu eta erabat gozatu ahal izango dituztela bermatzearren.

42. artikulua. Tratu ona jasotzeko, eta osotasun fisiko eta psikikorako, identitaterako eta duintasun pertsonalerako eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute tratu ona jasotzeko, beren identitatea, osotasun fisikoa nahiz psikikoa eta duintasun pertsonala errespetatuak izateko, bai eta kontzientzia-askatasuna eta sinesmen ideologikoak, erlijiosoak eta moralak errespetatuak izateko ere. Eskubide hori honela zehazten da:

1.- Ingurune seguru eta babesle batean bizitzeko eskubidea, beldurrik, indarkeriarik edo arretarik gabe.

2.- Tratu umiliagarri edo iraingarririk ez jasotzeko eskubidea.

3.- Identitatea, intimitatea, osotasun fisiko eta psikikoa, duintasun pertsonala, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo -adierazpena eta jatorri etnikoa eta jatorrizko herrialdea errespetatuko dira.

4.- Desberdintasuna eta pertsona guztien aniztasuna errespetatuko dira, estereotiporik gabe, genero-alborapenik edo bestelako kanpo-baldintzatzailerik gabe.

5.- Babestuta egongo dira eraso fisikoaren, emozionalaren, sexualaren eta moralaren aurka edo hezkuntza-esparruan, familian eta gizarte- eta hezkuntza-esparruan gerta daitekeen beste indarkeria-mota guztien aurka.

43. artikulua. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute. Eskubide hori eskubide espezifiko hauetan zehazten da:

1.- Funtsezko eta berariazko gaitasunak eskuratzea, beren potentzialtasunak garatzeko eta

bizitza betea izateko eremu pertsonalean, sozialean eta ingurunearekiko harremanean.

2.- Hezitzaileen berehalako arreta, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

3.- Inklusioa, gizarte-babesa eta prestakuntza aukera-berdintasunean. Barnean hauek hartzen dituzte:

a) Gabezia edo desabantaila pertsonalek, familiakoek, ekonomikoek, sozialek edo kulturalek eragindako desberdintasunak konpentsatzeko behar diren laguntzak eta babesa jasotzea, bereziki hezkuntza-sisteman sartzea, parte hartzea, jarraitzea eta ikastea eragozten edo zailtzen dutenean.

b) Edozein eratako desgaitasuna eta, hala badagokio, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituzten ikasleei arreta espezifikoa eta beharrezko laguntzak jasotzea.

c) Ezbeharrak, istripuak edo gaixotasun larri edo luzeak izanez gero babesa eta beharrezko laguntza jasotzea, eskolagabetze behartu baten eragina minimizatzeko eta hezkuntza-aurrerapenari eta aurrerapen pertsonalari bidea errazteko.

d) Arreta berezia jasotzea emakumeen aurkako indarkeria edo eskola-jazarpena pairatzen duenean.

e) Babesa lortzea indarkeriaren biktima izanez gero, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean araututakoaren arabera.

4.- Eskola-jarduerak objektiboki baloratzea; hezkuntza-etapa bakoitzerako berariazko ebaluazio-araudiari jarraikiz, eta irizpide hauek betez:

a) Informazioa pertsona orori irisgarri zaion eran jasotzea, eta norberaren ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte hartzea.

b) Ebaluatua izatea, batez ere ikaslearen aurrerapenak identifikatzera eta hezkuntza-prozesuan zehar izan ditzakeen zailtasunak hautematera bideratuta, zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak har daitezen irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan.

c) Era askotako ebaluazio-tresnen bidez ebaluatua izatea, ikaskuntzen bilakaera behar bezala baloratzeko aukera ematen duten tresnen bidez eta ikaslearen ezaugarri eta premia espezifikoetara eta ikaskuntza-egoera desberdinetara egokituta dauden tresnen bidez.

d) Programazio didaktikoen alderdiak ezagutzea, indarrean dagoen curriculum-araudiaren arabera. Alderdi horiek, nolanahi ere, ebaluazioaren funtsezko elementuak jasoko dituzte.

e) Ikasleak adingabeak direnean, informazio hori gurasoei edo legezko tutoreei ere emango zaie. Adin nagusiko ikasleen kasuan, gurasoek eta legezko tutoreek eskubide hori baliatu ahal izango dute, interes legitimoa dutela justifikatuz gero.

f) Aldez aurretik eskatuta, kalifikazio partzial edo azken kalifikazioetan eragina duten ebidentzia guztiak, hala nola lan, ariketa eta froga guztiak, zuzenduta daudenean, eskuratzeko eskubidea baliatzea. Prozeduran agiri horien kopiak eskuratzeko aukera dagoen zehaztuko da.

g) Ebaluazio partzialetan nahiz azkenekoetan hartutako erabakiei eta lortutako kalifikazioei buruzko argibideak eskatzea eta erreklamazioak aurkeztea. Azken ebaluazioei erreklamazioa aurkeztuz gero, barneko erreklamazio-prozedura betetzea nahitaezkoa izango da ikastetxetik kanpoko instantzietara jotzeko.

h) Ikastetxeek barne-prozedura bat ezarriko dute, f) eta g) puntuen ondorioetarako, eta haren publikotasuna eta jasota geratzea bermatuko duten bitartekoen bidez argitaratuko dute.

i) Ikastetxeek ikasleak ikasturte osoan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak gordetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri beharko dituzte, eta neurri horiei gero ere eutsi beharko diete, harik eta azken deialdiko kalifikazioak erreklamatzeko epea amaitu arte. Erreklamazioa egiten bada, erreklamazioa egin duten ikasleei itzuli ez zaizkien zuzendutako ariketa eta lan guztiak, bai eta aurkeztutako erreklamazioak ebazteko konparaketa-oinarri gisa erabiliko diren gainerako ikasleenak ere, gorde egin beharko dira, horiei buruzko administrazio-ebazpen bat edo ekintza judizial bat egin daitekeen bitartean.

5.- Eskola-orientazioa, orientazio pertsonala eta lanbide-orientazioa ematea, erabakirik onena hartzeko aukera izan dezaten, haien gaitasunak, trebetasunak eta interesak kontuan hartuta.

44. artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

1.- Ikaslearen ohorerako, haren eta familiaren intimitaterako eta irudirako eskubideetan intromisio ez-legitimotzat hartuko da ikaslearen izena edo irudia baliatzea, ohorean edo ospean gutxiestea eragiten badu edota haren interesen kontrakoa bada, adingabearen edo haren legezko ordezkarien baimena izanda ere.

2.- Ikastetxeetako gobernu-organoek neurri eraginkorrak hartuko dituzte eskubide hori bete dadin. Berariaz, familiei, ikasleen bitartez, ikastetxeko bizimoduari, irakaskuntza/ikaskuntzako jarduerari eta tutoretzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak soilik bidaliko zaizkie, zeinak organo hauek beren funtzioak betez egindakoak izango baitira: administrazio-organoek, gobernu-organoek edo koordinazio didaktikorako organoek, ikastetxeko profesionalek eta legez eratutako guraso-elkarteen edo ikasleen ordezkariek.

3.- Ikastetxeek, ikasturte bakoitzaren hasieran, berariazko baimena eskatuko diete ikasle guztiei eta, adingabeak badira, gurasoei edo legezko tutoreei, ikastetxeak egiten dituen jardueretan irudiak, bideoak edo audioak hartzeko, bai eta taldeko ohiko jardueretan, jaietan, inauterietan, aste kulturaletan, txangoetan, kirol-lehiaketetan eta urteko planean jasotako beste jarduera batzuetan ere, gaitutako kanalen bidez haiek guztiak argitaratu eta zabaltzeko.

45. artikulua. Informaziorako eskubidea.

1.- Ikasleek eskubidea dute haien garapenerako egokia den informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko, haien garapena, adina eta heldutasun-maila kontuan izanik.

2.- Ikastetxeek ikasleei beren eskubideak baliatzeko behar duten informazioa emango diete, bereziki ikastetxearen antolamenduan, gobernuan eta funtzionamenduan parte hartzeko eskubideari dagokionez, bai eta babeserako eskubideari dagokionez ere, informazioaren eta

komunikazioaren teknologien erabilerak dituen arrisku-egoerak identifikatu eta haiei aurre egin ahal izateko.

3.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, ikastetxeek, ikasturte bakoitzaren hasieran, indarkeria-egoeren komunikazio-prozedurei buruzko eta haien potentzialtasunaren garapenean eragin dezaketen beste prozedura batzuei buruzko informazio zehatza eman eta eskuragarri jarriko diete ikasleei formatu irisgarrietan. Era berean, egoera horiei buruzko komunikazio elektronikoak zer baliabideren bidez jaso eta baliabide horiek nola erabili jakiteko informazio eguneratua eta irisgarria emango diete.

46. artikulua. Askatasun ideologikorako eskubidea.

1.- Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta sinesmen erlijiosoak, moralak eta ideologikoak errespeta diezazkieten.

2.- Eskubide hori bermatzeko, ikasleek eta, adingabeak badira, haien gurasoek edo legezko tutoreek behar besteko informazioa izan beharko dute hezkuntza-proiektuari buruz eta, hala badagokio, ikastetxearen berezko izaerari buruz, matrikula formalizatu aurretik.

47. artikulua. Parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea.

1.- Ikasleek elkarte, federazio eta konfederazioetan elkartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera. Ikastetxeek lokal egokiak jarriko dituzte legez eratutako elkarteen berezko jardueretarako, baldin eta jarduera akademikoan aldaketarik ez badakar.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtetik aurrera ikasleek, eskoletara joateari dagokionez, hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira joko jokabide desegokitzat, bizikidetza positiboaren aurkakotzat edo bizikidetza horri kalte larria eragiten dioten jokabidetzat, eta ez da jokabideak aldatzeko hezkuntzaren arloko esku-hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurarik egingo, baldin eta bilera-eskubidea baliatuta hartu badira erabakiak eta ikastetxeko zuzendaritzari aldez aurretik jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak berak bere Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian xedatutako arauei jarraituz.

48. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidea.

1.- Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak bakarka eta taldean adierazi ahal izateko. Eskubide hori baliatzeko muga gainerako pertsonen eskubideak errespetatzea izango da, bereziki haien ohorea, intimitatea eta irudia, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.- Ikastetxeetako antolamendu- eta funtzionamendu-araudiek edo barne-araudiek zehaztuko dituzte, idazki bidez, adierazpen-eskubidea baliatzeko modua eta espazioak.

3.- Eskubide hori baliatzeari indarrean dagoen araudiak aurreikusitako murriztapenak aplikatu ahal izango zaizkio.

49. artikulua. Entzuna eta aditua izateko eskubidea.

1.- Ikasleek entzunak eta adituak izateko eskubidea dute ikastetxeen hezkuntza-esparruan, haien hezkuntzan eragina duten erabakiek ukitzen badituzte, adina, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar dela-eta inolako diskriminaziorik jasan gabe. Horretarako, haien iritziak hartuko dira kontuan, duten adinaren eta heldutasunaren arabera.

2.- Ikasleek hizkuntza ulergarrian jaso behar dute eskubide hori baliatzeko behar den informazioa, beren inguruabarretara egokitutako formatu irisgarrietan.

3.- Bermatuko da ikasleek iritzia eman ahal izango dutela beren kabuz edo ordezkatzeko izendatzen duten pertsonaren bidez, horretarako behar besteko adimena dutenean. Ezinezkoa bada edo adingabearen interes gorena dela-eta komeni ez bada, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izango da zer iritzi duen, baldin eta legezko ordezkari horiek alderdi interesdun ez badira eta adingabearen interesen aurkako interesik ez badute; edo, bestela, lanbideagatik edo adingabearekin aparteko konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez.

50. artikulua. Ikasteko eta prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

1.- Ikasleen betebeharra da ikastea eta ahaleginak egitea beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, eta interesa eta lana jartzea duintasunez eta besterekin bizitzeko bidea emango dieten gaitasunak eskuratzeko, bai eta etorkizunean laneratzen laguntzeko ere. Era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta mantentzen lagundu beharko dute, eta beren portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2.- Ikasleak behartuta daude azterketak, probak, ariketak eta lanak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak baimendutako liburuak, materialak eta tresnak besterik ez dute erabiliko.

3.- Ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte hartu beharko dute, ikasketetan arrakasta izateko eta pertsona gisa erabat garatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatu beharrez.

4.- Eskolako banakako zein taldekako jarduera guztietara joan eta haietan aktiboki parte hartu beharko dute.

51. artikulua. Bertaratzeko betebeharra.

1.- Ikasleek egunero joan behar dute eskolara eta garaiz iritsi behar dute; ezin dute justifikatu gabeko absentziarik egin, eta sarrerako eta irteerako ordutegiak errespetatu behar dituzte, jarduerak ikastetxeko instalazioen barruan nahiz kanpoan egin.

2.- Justifikatu gabeko absentziatzat joko dira ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek idatziz, ikastetxeko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiaren arabera onargarria den justifikazio baten bidez, justifikatu gabeko ez-bertaratzeak edo puntualtasun-faltak.

52. artikulua. Hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak errespetatu behar dituzte,

bizikidetza positiboaren funtsezko arau gisa. Zehazki, heldu arduradunen lana errespetatu eta haien jarraibideak bete beharko dituzte, bai hezkuntza-lana egiten ari direnean, bai bizikidetzarako arauak eta ikastetxearen antolamendu- eta funtzionamendu-arauak betetzen direla kontrolatzeko lanak egiten ari direnean.

2.- Hezkuntza-komunitateko gainerako pertsonen kontzientzia-askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatu beharko dituzte.

3.- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien genero-identitatea eta -adierazpena, sexu-orientazioa eta duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatu beharko dituzte, eta jaiotza, arraza- edo etnia-jatorri, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik eragin daitekeen edozein diskriminazio saihestu beharko dute.

4.- Indarkeria-molde guztiak baztertu beharko dituzte.

5.- Hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu beharko dituzte.

6.- Modu solidarioan eta arduratsuan jardun beharko dute pertsona zaurgarrienen alde edo eskola-jazarpena edo bestelako indarkeria jasan dezaketenen alde, eta haiek errespetatu eta babestu beharko dituzte, eta haien inklusioa sustatu.

53. artikulua. Hezkuntza-arauak errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek antolamendu- eta funtzionamendu-araudiko eta ikastetxeko gainerako plan eta dokumentuetako aurreikuspenak bete beharko dituzte, bai eta bizikidetza-arauak ere. Zehazki, ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak errespetatu beharko dituzte, organo horiei dagokien eskumen-esparruan, atsedenaldietan eskola-esparrutik irteteari eta irteera horietan duten portaerari dagozkienak barne. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera ikasle adingabeei irteera horiek baimentzeko, gurasoen edo legezko tutoreen baimen idatzia beharko da.

2.- Hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin modu aktiboan eta positiboan parte hartu eta aritu beharko du, hezkuntza-jarduera guztiak garatzen laguntzeko.

3.- Ikastetxean jokabideak aldatzeko ezarri diren hezkuntzaren arloko esku-hartzeko neurriak bete beharko ditu.

4.- Bizikidetza positiboa aldatzen duten jokabideen aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduran lagundu beharko du, eta bere testigantza eman beharko du prozeduraren arduradunek eskatzen diotenean.

54. artikulua. Ingurunea, jasangarritasuna eta hezkuntza-komunitatearen gauzak errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek ez diote lagunduko baimenik ez duen kanpoko inori ikastetxean sartzen, eta ez dira ibiliko bertan bidegabe sartu den inorekin. Ondorio horietarako, ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkarteak

ordezkatzen dituzten pertsonak, baldin eta ordezkari gisa identifikatzen dituen dokumentazioa badute eta ikastetxeko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote.

2.- Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua zaindu eta errespetatu beharko ditu, bai eta jantokikoak, eskola-garraiokoak, larrialdi-sistemakoak eta hezkuntza-jardueran erabiltzen diren material guztiak ere, haien erabilera egokiaren, ikastetxeko araudiaren eta hezitzaileen jarraibideen arabera.

3.- Hezkuntza-komunitateko gainerako kideen ondasunak eta gauzak errespetatu beharko ditu, bereziki bere ikaskideenak.

4.- Ura eta energia modu egoki eta jasangarrian erabili beharko ditu.

5.- Ikastetxearen ingurunea errespetatu, ordenari eutsi eta bere instalazioak eta kanpoko espazioak zaindu beharko ditu: lorategiak, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak, etab.

3. ATALA: HEZKUNTZA-SEKTOREEK BIZIKIDETZAREN ESPARRUAN DITUZTEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

55. artikulua. Irakasleek eta irakasle ez diren langileek bizikidetzaren esparruan dituzten eskubideak eta betebeharrak.

1.- Eskubideak.

a) Eskubidea dute hezkuntza-lana beren eskubideak eta osotasun fisiko eta morala errespetatzen diren giroan egiteko.

b) Eskubidea dute, beren eginkizunak betetzean, ikastetxeko hezkuntza-komunitateak errespeta ditzan, tratu egokia eman diezaien eta balora ditzan.

c) Eskubidea dute bizikidetza positiboaren eta haren kudeaketaren arloko etengabeko prestakuntza jasotzeko, dekretu honetan ezarritakoaren arabera, bai eta aniztasunarekiko arretari, inklusioari, berdintasunari, hezkidetzari eta kulturartekotasunari buruzko prestakuntza jasotzeko ere.

d) Eskubidea dute familiekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin beharrezkoa duten komunikazioa eta lankidetza izateko, kasu bakoitzean behar duten babesarekin.

e) Eskubidea dute bizikidetzaren arloko eskumenak dituzten koordinazio- eta gobernu-organo eta -egituretan aktiboki parte hartzeko.

f) Eskubidea dute autonomia pedagogikoa izateko eta ikastetxeko eta ikasgelako bizikidetza-arauak aplikatzeko erabakiak hartzeko.

g) Eskubidea dute eskoletan, gainerako jardueretan, zerbitzu osagarrietan eta eskolaz kanpoko zerbitzuetan bizikidetza-giro egokia mantentzeko beharrezkoa den autoritatea aitortu dakien.

h) Eskubidea dute beren iritzia askatasunez adierazteko, baldin eta inor diskriminatzen ez

badute eta bizikidetza positiboaren balioen aurkako jokabideak bultzatzen ez badituzte.

i) Eskubidea dute aholkularitza eta defentsa juridikoa izateko, beren eginkizunak zilegi den moduan betetzetik erator daitezkeen prozeduretan.

2.- Betebeharrak.

a) Betebeharra dute ikasleei hezkuntza integrala emateko, bizikidetza positiboaren helburu, printzipio eta balioetan oinarritua eta harekin lotutako gaitasunak ikastera bideratua, dekretu honetan ezarritako arauei jarraikiz.

b) Betebeharra dute ikasleen eta ikastetxeko hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak errespetatzeko eta errespetarazteko.

c) Betebeharra dute bizikidetza positiboaren arloan eta hura kudeatzeko estrategietan etengabe eguneratuta egoteko, dekretu honetan ezarritakoaren arabera, bai eta aniztasunarekiko arretan, inklusioan, berdintasunean, hezkidetzan eta kulturartekotasunean eguneratuta egoteko ere.

d) Betebeharra dute ikastetxeko eta ikasgelako bizikidetza-arauak errespetatzeko, bai eta bizikidetza positiboa eraikitzeko abian jarri behar dituzten balioak, jarrerak eta jokabideak ere errespetatzeko ere.

e) Betebeharra dute, ikastetxeko koordinazio- edo gobernu-organoetako kide gisa, bizikidetza positiboa kudeatzeko esleituta dauzkaten ardurak eta zereginak (taldekoak zein banakakoak) beren gain hartzeko.

f) Betebeharra dute ikasleei buruzko informazioa eta haien egoera pertsonalak eta familiarrak isilpean eta ezkutuan gordetzeko eta konfidentzialtasuna bermatzeko, indarrean dagoen araudiari jarraituz eta behar duten arreta berehala emateko aukera galarazi gabe.

56. artikulua. Ikasleen familien eskubideak eta betebeharrak.

1.- Ikasleen familiei dagokie, haien seme-alaben edo tutoretzapeko pertsonen hezkuntzaren lehen arduradun eta arduradun nagusi diren aldetik, familia-eremuan haien hezkuntza ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, haien seme-alaben edo tutoretzapeko pertsonen eskubideak bermatzeko eta haien betebeharrak beren gain hartzeko, indarrean dagoen araudian jasoak. Horretarako, ikastetxeko hezitzaileekin lankidetzan aritu beharko dute, modu eraikitzailean aritu ere, beraiek eskatuta edo hezitzaileek eskatuta, hezkuntza-prozesua kalitatez garatu dadin.

2.- Familiek eskubidea eta betebeharra dute seme-alaben edo tutoretzapeko pertsonen hezkuntzan aktiboki parte hartzeko, ikastetxeko hezitzaileekin lankidetzan, bai eta hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko bizikidetzan laguntzeko ere, hezkuntza-eginkizuna eta eginkizun hori betetzen duten profesionalak errespetatuz betiere.

3.- Eskubideak.

a) Eskubidea dute bizikidetzaren alorreko eskumenak dituzten koordinazio- eta gobernu-

organo eta -egituretan aktiboki parte hartzeko, bai eta esleituta dituzten arduretarako eta eginkizunetarako prestakuntza egokia jasotzeko ere.

b) Eskubidea dute errespetatuak izateko eta ikastetxeko hezitzaileengandik tratu egokia jasotzeko, batez ere intimitateari eta konfidentzialtasunari dagokienez seme-alabei edo tutoretzapekoei edo familia-nukleoari eragiten dien informazioa tratatzerakoan.

c) Eskubidea dute beren iritzia askatasunez adierazteko, baldin eta inor diskriminatzen ez badute eta bizikidetza positiboaren balioen aurkako jokabideak bultatzen ez badituzte.

d) Eskubidea dute aldian-aldian seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko, indarrean dagoen araudiaren eta ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian ezartzen diren zehaztapenen arabera.

e) Eskubidea dute beren seme-alaben edo tutoretzapekoen ikaskuntzaren aurrerapenari eta gizarte- eta hezkuntza-arloko integrazioari buruz hezitzaileekin izan beharreko komunikazioa eta lankidetza izateko; familien balorazioak kontuan hartzekoak izango dira, indarrean dagoen araudian eta ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian aurreikusitakoaren arabera.

f) Eskubidea dute ikastetxearen bizikidetza-arauei buruzko informazioa jasotzeko, bai eta beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuan eragina duten alderdi guztiei buruzko informazioa jasotzeko ere.

g) Eskubidea dute beren seme-alaben edo tutoretzapekoen orientazio eta aurrerapen akademikoari eragiten dioten erabakietan entzunak izateko, barne direla bizikidetzari negatiboki eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak, dekretu honen VII. kapituluan aurreikusitako baldintzetan.

4.- Betebeharrak.

a) Seme-alaben nahiz tutoretzapean dituzten pertsonen hezkuntza-prozesuaren bilakaera ezagutzea eta horretan parte hartzea eta laguntzea, irakasleekin eta gainerako hezitzaileekin elkarlanean arituz.

b) Ahal duten neurrian, beren seme-alabei edo tutoretzapean dituzten pertsonei eskolan aurrera egiteko behar dituzten baliabideak eskaintzea eta horretarako baldintzak jartzea, eta agintzen zaizkien ikasketa-jarduerak egin ditzaten estimulatzea. Era berean, jakinarazi beharko dute zer zailtasun dituzten beren seme-alabek edo tutoretzapekoek ikaskuntza-prozesuetan, heltze-prozesuetan edo beren bilakaera pertsonalari edo sozialari eragin diezaiokeen beste edozein prozesutan.

c) Ikastetxeek familiekin ezartzen dituzten hezkuntza-konpromisoei jarraituz ezartzen diren jardueretan aktiboki parte hartzea.

d) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, bizikidetza-arauak, ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudia, eta bizikidetza positiboa garatzen duten planak eta proiektuak ezagutzea.

e) Irakasleek beren eginkizunak betetzean dauzkaten autoritatea eta orientabideak errespetatzea eta errespetaraztea.

f) Ikastetxeak proposatzen dizkien proiektu eta zereginetan modu lagungarrian parte hartzea, bereziki bizikidetza positiboaren arlokoetan.

57. artikulua. Administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak eta betebeharrak.

1.- Eskubideak.

a) Eskubidea dute, beren eginkizunak betetzean, errespetatuak izateko, tratu egokia jasotzeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako eragileen balioespena izateko.

b) Eskubidea dute beren iritzia askatasunez adierazteko, baldin eta inor diskriminatzen ez badute eta bizikidetza positiboaren balioen aurkako jokabideak bultatzen ez badituzte.

c) Eskubidea dute, beren eginkizunak betetzean, bizikidetza hobetzen parte hartzeko.

d) Eskubidea dute defentsa juridikoa izateko beren eginkizunak zilegi den eran betetzetik erator daitezkeen prozeduretan, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

2.- Betebeharrak.

a) Bizikidetza positiboa nola kudeatu jakitea eta kudeaketan parte hartzea, ikastetxe bakoitzean eratutako partaidetza-egituren bidez.

b) Ikastetxearekin, bizikidetza-giro ona izan dadin, lankidetzan aritzea eta, beren eginkizunen esparruan, bizikidetza-arauak eta ikastetxeko dokumentu eta planetan dauden gainerako aurreikuspenak betetzen direla zaintzea.

c) Hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, sinesmen erlijiosoak eta moralak, duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatzea.

d) Zuzendaritzari bizikidetza larri nahasten duten jokabideen berri ematea, neurri egokiak hartu ahal izateko.

e) Ikasleei buruzko informazioa eta haien egoera pertsonalak eta familiarrak isilpean eta ezkutuan gordetzea eta konfidentzialtasuna bermatzea, indarrean dagoen araudiari jarraituz eta behar duten arreta berehala emateko aukera galarazi gabe.

f) Bizikidetza positiboari lotutako administrazio-dokumentazioa zaintzen laguntzea, bai eta esparru horretan ezagutzen dituen jarduketak isilpean eta konfidentzialtasunez gordetzea ere.

g) Aktiboki laguntzea bizikidetzaren aurkako jokabideak eta, bereziki, eskola-jazarpeneko egoerak prebenitzen, detektatzen eta desagerrarazten. Gainera, eskatzen bazaio, jokabide autolesiboei aurre egiteko hezkuntza-arloko esku-hartzeetan laguntzea.

VI. KAPITULUA: IKASTETXEETAN BIZIKIDETZA POSITIBOA NAHASTEN DUTEN JOKABIDEAK. ESKOLA-JAZARPENA ETA -ZIBERJAZARPENA ETA IKASLEEN JOKABIDE SUIZIDAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

58. artikulua. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria testuinguru sozialean.

1.- Alde batera utzita zergatik eta zer arlotan agertzen diren diskriminazioarekin, bazterketarekin eta intolerantziarekin lotutako jokabideak, antzeko prozesu psikosozialak izaten dituzte: hierarkizazio soziala, menderakuntza, homogeneotasun kontzeptua eta aniztasuna ez onartzea. Indarkeriak osagai estrukturalak eta sistemikoak dauzka; osagai horiek, azkenean, gizarte-ehuna ere kutsatzen dute, eta, sarri askotan, areago kutsatzen dituzte kolektibo zaurgarrienak, tartean direla haurrak eta nerabeak.

2.- Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen arabera, indarkeriatzat joko da heldu batek edo adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu adingabeak, eta haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badute, kontuan hartu gabe nola eta zeren bidez egiten den (hau da, barne direla harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoak, bereziki indarkeria digitala), noizbehinka, eskuarki nahiz modu jarraituan egiten den eta familia barruan nahiz kanpoan gertatzen den.

3.- Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, indarkeriaren biktima diren edo beste adingabe baten aurkako indarkeria-egoeraren bat ikusten duten haur eta nerabeek horren berri eman ahal izango diete erakunde eta organismo arduradunei.

4.- Ahaztu gabe indarrean dagoen araudiak hezitzaileei adingabeen eskubideak babesteko esleitzen dizkien erantzukizunak, beharrezkoa izango da diziplina anitzeko balorazioa eta esku-hartzea, haien interes gorena babestu behar duten zerbitzu eta pertsona guztien inplikazioa eta erantzukidetasuna oinarri hartuta.

59. artikulua. Ikastetxeetan bizikidetza positiboa nahasten duten jokabideak.

1.- Dekretu honen ondorioetarako, bizikidetza positiboa nahasten duten jokabideak dira norberaren betebeharrak ez betetzea eragiten duten guztiak, bai eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak eta betebeharrak baliatzea zailtzen edo eragozten dutenak ere.

2.- Kasu guztietan, modu hezigarrian esku hartuko da bizikidetza positiboa nahasten duten ikasleen jokabideetan.

3.- Ikasleak ez diren hezkuntza-sektoreetako kideen kasuan, bizikidetza nahasten duten jokabideak gertatzen direnean, ikastetxeko zuzendaritzak arduraz jokatuko irtenbide errestauratiboak eta erreparatzaileak ahalbidetzeko, egindako kaltea konpontzeko eta bizikidetza bere onera ekartzeko. Edonola ere, jokabide-kode eta -printzipioekin lotutako betebeharretatik datozen xedapenen arabera jardungo da, inplikatutako pertsona dagoen sektorean indarrean dagoen araudi espezifikoan ezarritakoaren arabera.

60. artikulua. Ikastetxeetan izaten diren indarkeriazko jokabideak.

1.- Pertsonen arteko harremanetan indarkeriazko jokabideak definitzen dituen faktorea da gatazkan dauden alderdi bat edo biak, nahita, bestea gailentzen saiatzea, zuzenean edo zeharka

kaltea eragiteko asmoa izanik.

2.- Ikastetxeetan, pertsonen arteko harremanetan indarkeria ekar dezaketen jokabideak honako hauek dira:

a) Mehatxuak, isekak, barregarri uztea, irainak eta esaldi iraingarriak, mespretxuzkoak, laidogarriak edo erasokorrak.

b) Hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuei zerbait egitera behartzeko edo zerbait egitea eragozteko jokabideak, bai eta larderia, xantaia, mehatxuak edo derrigortzeak ere.

c) Ahaleginak, eraso-mehatxuak edo erasoak.

d) Jokabide autolesiboak eragitea.

e) Diskriminazioa, isekak, umiliazioak edo pertsonen duintasunaren aurkako jokabideak.

f) Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa.

g) Beste pertsona batzuen ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzea, irudiak, artxiboak, testuak eta soinuak grabatu, manipulatu, argitaratu edo zabalduz, bai eta nortasuna ordeztuz ere.

h) Sexu-erasoa edo emakumeen kontrako indarkeria.

i) Eskola-jazarpena.

j) Ekonomia-egoera, gizarte-maila, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo bestelako egoerak direla-eta sortutako beste indarkeria-mota batzuk

k) Arau-hauste penal izan daitekeen beste edozein jokabide.

3.- Pertsonen arteko indarkeriak ikastetxeetan sortzen diren harreman guztiei eragin diezaieke, bai hezkuntza-komunitateko sektore bereko pertsonen artean, bai sektore ezberdinetako pertsonen artean.

4.- Pertsonen arteko harremanetan ager daitekeen indarkeriaz gain, indarkeria eragin dezaketen beste jokabide mota batzuk ere izan daitezke ikastetxeetan. Hona hemen haietako batzuk:

a) Ikastetxeko edo hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuen ondasunak hondatzea, kaltetzea edo narriatzea, bai eta ebasketak eta lapurretak ere.

b) Saiakerak, eraso-mehatxuak edo erasoak.

c) Eskola-zerbitzuetan (hala nola eskola-garraioan edo jantokian) edo eskolaz kanpoko jardueretan indarkeriaz gertatutako istiluak eta ordena-nahasketak.

d) Indarkeriaz egindako beste edozein jokabide.

5.- Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleek izan ditzaketen indarkeriazko portaerak.

a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta indarkeriazko jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleen kasuan, ikastetxeetan sortzen diren egoeren konplexutasunak gainditu egin dezake ikastetxeari dagokion hezkuntza-erantzunerako gaitasuna. Kasu horietan, beharrezkoa izango da eremu familiar, sanitario eta sozialean esku hartzea, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularitzek koordinatuta.

b) Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak eskolatuta dauzkaten ikastetxeek jarduteko protokolo bat ezarri beharko dute, hala behar duten krisi-egoerei erantzuteko. Horretarako, beharrezkoa duten aholkularitza eskainiko die Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak.

61. artikulua. Ikastetxeetan izaten diren gatazkak.

1.- Pertsonen arteko harremanetan tentsioa eta antagonismoa eragiten duten egoerak dira gatazkak, jarrera, interes, asmo, behar edo nahi kontrajarriak edo bateraezinak izaten baitituzte pertsona horiek.

2.- Gatazkak ez dira negatiboak berez; pertsonen arteko desberdintasunetatik sortzen dira, haien artean dagoen ezinbesteko aniztasunetik. Baina gatazketan dabiltzan alderdiek gatazkei nola aurre egiten dieten, haiei aurre egiteko zer prozedura eta estrategia erabiltzen dituzten, ondorioak negatiboak edo onuragarriak izango dira. Gatazkak, pertsonen arteko konfrontazio-egoerak diren heinean, oldarkortasunez eta indarkeriaz garatu daitezke, behar bezala kudeatzen ez direnean edo bitartekotza-tresnek huts egiten dutenean.

62. artikulua. Ikasleen jokabide disruptiboak.

1.- Jokabide disruptibo deritzenetan, ikasle batzuek irakasleei eta ikasgelako gainerako ikasleei irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak eraginkortasunez garatzea oztopatzen edo eragozten diete.

2.- Jokabide disruptiboak indarkeriaz egin daitezke, baina ezarritako arauak ez betetzetik sortzen dira, eta, hain zuzen, horretan bereizten dira pertsonen garapen pertsonal edo sozialaren zenbait alderdiri eragiten dieten indarkeriazko jokabideetatik.

3.- Ikastetxeetan gerta daitezkeen jokabide disruptiboen artean hauek daude:

a) Eskola-garapena oztopatzea, bai irakasleei, bai ikaskideei.

b) Diziplinarik eza, elkarlanean ez aritzea eta errespetu-falta. Irakasleei edo ikastetxeko beste hezkuntza-langile batzuei desobeditzea edo jokabide desafiatzaileak izatea.

2. ATALA: ESKOLA-JAZARPENA ETA ESKOLA-ZIBERJAZARPENA.

63. artikulua. Eskola-jazarpena eta eskola-ziberjazarpena, eskola-indarkeriaren modu espezifikoak.

1.- Hezitzaileek ikastetxeetan izaten diren indarkeria mota guztiei erantzun behar diete, bai agerikoenei —hala nola eraso zuzenak, ikastetxeko instalazioetan eragindako kalteak edo gauzak ostea—, bai hain agerikoak ez diren eran egin daitezkeenei, hala nola irainak, barregarri uztea, gutxiestea edo sarean hitza edo identitatea usurpatzea.

2.- Ikastetxeetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan, indarkeria mota espezifiko bat ager daiteke, pertsona batek edo batzuek beste bat edo batzuk indar fisikoa, psikologikoa edo soziala baliatuta menderatzen dituztenean, nagusitasun-mendetasun harremana sortuz. Indarkeria horrek botere-abusua dakar berekin, babesgabetasuna sorrarazten dio erasoa jasan duen pertsonari, mugatu egiten dizkio eskubideak eta ongizatea, eta hautsi egiten du eskubide-berdintasuna duten pertsonen arteko harremanetan nagusi izan behar duen oreka.

3.- Dekretu honen ondorioetarako, eskola-ziberjazarpena eskola-jazarpenaren modalitate espezifiko bat da, eta gertatzen den ingurune birtual horrek ematen dizkion ezaugarri jakin batzuk ditu. Eskola-jazarpen terminoaren barruan eskola-ziberjazarpena ere sartzen da, eskola-ziberjazarpenarekin berariaz lotutako egoerak arautzen diren egoeretan salbu.

4.- Eskola-ziberjazarpenak eskola-jazarpenaren ezaugarri berberak ditu, hala nola botere-desoreka eta harekin lotutako babesgabetasuna, intentzionalitatea eta pertsonalizazioa. Hala ere, ezaugarri espezifikoak ditu errepikapenari dagokionez. Ingurune birtualetan kaltea ugaritzeko dagoen erraztasuna elementu esanguratsua da. Izan ere, eskola-ziberjazarpenean jokabide erasotzaile bakar batek biktimizazioa eragin dezake, ez baitago kontrolik erasoa zenbat aldiz errepikatzen edo zabaltzen den jakiteko.

5.- Ingurune birtualetan, hasiera batean jazartzeko asmorik gabe izan diren jokabide zuhurtziagabeen ondorioak nahita egindako erasoenak bezain larriak izan daitezke azkenean.

6.- Askotan, eskola-jazarpen presentziala eta eskola-ziberjazarpena gertatzen dira aldi berean, alde batera utzita nola hasi den jokabide oldarkorra.

64. artikulua. Eskola-jazarpena modu hezigarrian prebenitzea.

Eskola-jazarpenaren oinarrian dauden portaerak prebenitzeko, ikastetxeek bizikidetzarako ingurune seguru eta inklusiboak eraiki beharko dituzte, eta fenomeno horrekin lotutako aldagaietan berariaz esku hartu beharko dute. Helburu horrekin, ikastetxeetako ardura-organoek erabakiko dute zer estrategia-konbinazio egokitzen den hobekien beren hezkuntza-testuingurura, irizpide hauen arabera:

1.- Sentsibilizazioa eta arreta ematea, eskola-jazarpenarekin lotutako egoerak gertatzen direnean. Hezitzaileen ohiko jardueretan, aldian-aldian, ikasle bakoitzaren egoera sozioemozionala eta akademikoa nolakoa den jakiteko prozedurak eta tresnak txertatuko dira, bai eta berdinen taldean gertatzen diren dinamikak ere, eskola-jazarpenaren portaera espezifikoei dagokienez.

2.- Sentsibilizazioa eta arreta sistematikoa ikastetxearen ohiko dinamikan. Ikastetxearen ohiko dinamikan integratuko da hezitzaile guztien (batez ere irakasleak eta ikasleak)

sentsibilizazioa eta arreta sistematiko eta bideratua, eskola-jazarpenarekin lotuta egon daitezkeen egoeretarako; esaterako, egoera hauek:

a) Eskola-jazarpenari lotutako jokabideak sarritan helduen begiradatik urrun gertatzen dira, eta jasaten dituztenek zailtasunak izan ohi dituzte pairatzen duten ondoeza ezagutzera emateko.

b) Ikasleen jarrera-aldaketak —hala nola umore-aldaketak, tristura, somatizazioak, bakardadea, uzkurtzea, errendimendu akademikoaren beherakada, ohikoa ez den eskola-absentismoa eta antzeko adierazpenak— eskola-jazarpeneko egoeren zantzuak izan daitezke.

c) Ikasleen arteko pertsona arteko harremanak nola gertatzen diren, bereziki nagusitasun-mendetasun jarrerak, jokabideak edo portaerak barne hartzen dituztenean. Hezitzaileek ezaugarri horiek behatzeko gaitasuna garatu beharko dute, eskola-jazarpeneko balizko egoeren atariko zantzuak izan daitezke eta.

d) Ikasleek baliabide birtualak erabiltzean dituzten usadioak eta ohiturak, eta ziberbizikidetzakoak.

e) Ikasleengan eragina izan dezaketen arrisku- eta zaurgarritasun-egoerak.

3.- Komunikazio-kanal seguruak ezartzea.

a) Ikasle-talde bakoitzaren hezkuntza-taldeetako kideen arteko komunikazioa sistematizatu egingo da, eskola-jazarpen kasuei antzemateko.

b) Era berean, komunikazio-kanal seguruak ezarriko dira, eskola-jazarpenarekin zerikusia duten jokabideei buruzko informazio garrantzitsua emateko. Haien artean, ikasle laguntzaileak sartu ahal izango dira berdinen arteko laguntza-sistemen barruan, banakako tutoretzak, postontziak eta antzeko beste kanal batzuk, informazioa ematen duten ikasleen konfidentzialtasuna bermatu beharko dutenak.

4.- Curriculum-jarduera espezifikoak. Ikastetxe guztietan eskola-jazarpenaren inguruko curriculum-jarduera espezifikoak jarriko dira abian, tutoretza-planen eta arlo, ikasgai edo eremu bakoitzean programatutako zeharkako jardueren bidez.

5.- Ikastetxeko bizikidetza-planean ageri diren eskola-jazarpenari aurre egiteko jarduketak. Bizikidetza-planean jasoko da zer ildo nagusi baliatuko dituen ikastetxeak eskola-jazarpenaren prebentzioaren arloan jarduteko eta eskola-jazarpeneko balizko kasuetan esku hartzeko eskariak egonez gero modu hezigarrian jarduteko.

65. artikulua. Ustezko eskola-jazarpen kasuak direla-eta esku hartzeko eskaerak egiten direnean, modu hezigarrian jardutea.

1.- Jarduteko protokoloa.

a) Hezkuntza-arloko eskumena duen sailak erregulatuko du eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloa, eta protokolo hori nahitaez bete beharko dute ikastetxeek.

b) Protokoloaren xedea izango da ikastetxeek baloratzea ikasle baten edo batzuen aurkako eskola-jazarpenik gertatu den ala ez, eta hezkuntza arloko zer esku-hartze egin behar diren zehaztea, bai jazarpen hori aintzat hartzen denean, bai hala ez denean.

c) Izan daitezkeen eskola-jazarpeneko egoerei aurre egiteko jarduteko protokoloak zehatz arautuko ditu fenomeno horren ezaugarriak, protokoloa aplikatzeko baldintzak eta protokoloaren hasieran, garapenean eta amaieran egin behar diren jarduketak, bai eta esku hartzeko eskaerak kudeatzeko garrantzitsuak diren beste gai batzuk ere. Era berean, ikastetxeak fase bakoitzean bete beharreko agiriak ere jasoko ditu.

d) Jarduteko protokoloa jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak ireki aurreko administrazio-jarduketatzat hartzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Jarduteko protokoloa printzipio gidari hauen arabera garatuko da:

a) Eskola-jazarpenari aurre egiteko prebentzioa eta sentsibilizazioa, haren kanpo-zeinuak eta hura garatzen lagundu dezaketen egoerak.

b) Esku hartzeko eskaerak izaten direnean jarduketak erregistratzea, bai eta arreta, entzute aktiboa eta enpatia kognitiboa, afektiboa eta keinuzkoa ematea ere, eskaria aurkezten duenari zuzendua.

c) Esku hartzen duten hezitzaile guztien konfidentzialtasuna, bereziki inplikatutako ikasleen familiei dagokienez.

d) Ustez jazarpena jasan duten ikasleak babestea eta zaintzea, eta haiekin komunikatzeko bide seguruak ezartzea.

e) Ustez jazarpen-portaerak izan dituzten ikasleekin hezkuntza-arloko esku-hartzeak egitea.

f) Esku hartzeko eskaerari erantzun eraginkorra eta kalitatezkoa emateko antolamendu eta funtzionamendu egokiak.

g) Inplikatutako ikasleen familiekin komunikatzea, koordinatzea eta lankidetzan aritzea.

h) Esku-hartze globala, ikuspegi sistemiko-ekologikotik eta ikuspuntu errestauratibotik, BAT taldeak koordinatuta eta hezkuntza-taldearen barruan etengabeko komunikazioa izanda.

i) Hezkuntza-taldeak zuhurtzia eta diskrezioa izatea, jarduteko protokolotik eratorritako esku-hartzeetan.

j) Egoera serio edo larrietan, jarduteko lehentasunak ezartzea.

k) Arrazoiketa eta zehaztasuna balorazioetan eta erabakietan, tresna eta prozedura espezifikoen bidez jasotako datuetan eta ebidentzietan oinarrituta, eta eskuduntza, aurreiritzi, suposizio edo iritzi hutsetan oinarritutako erabakiak baztertzea.

3.- Eskolako ziberjazarpen-jokabideak egon daitezkeen kasuetan, irizpide hauek hartuko dira kontuan, modu osagarrian:

a) Eskola-ziberjazarpenagatik esku hartzeko eskaerak daudenean ahalik eta azkarren erantzutea. Indarrean dagoen jarduteko protokoloan adierazitako epeak ahalik eta gehien laburtuko dira.

b) Gertaerei buruzko frogak eta ebidentziak biltzea.

4.- Ikuspegi bikoitzetik bideratuko dute adierazitako printzipioek ikastetxeen esku-hartzea. Banaka hartuta, jarduteko protokoloaren eraginkortasuna ziurtatzeko garrantzitsuak diren alderdiak azpimarratzen dituzte. Oro har hartuta, bidea ematen dute identifikatzeko esku hartzeko eskaera bakoitzean garrantzi handiena duten alderdiak, bai eta jarduketen une desberdinetan indartu behar direnak ere.

5.- Jarduteko protokoloaren alderdi formalak eta protokoloaren helburuekiko bateragarritasuna.

a) Jarduteko protokoloaren aurreikuspen formalak, hala nola eranskinak, epeak eta prozedura-uneak, protokoloaren xedearekin bateragarri egin beharko dira. Protokoloaren dimentsio formalak protokoloaren estandarizazioa eta esku hartzen duen hezkuntza-taldearen ulermen komuna bermatzen ditu; protokoloaren helburua, berriz, ikasle batenganako eskola-jazarpena dagoen balioestea eta hezkuntza-erantzuna eskaera zehatz bakoitzera egokitzea da.

b) Jarduteko protokoloak kudeatzen dituzten hezkuntza-taldeek haren konplexutasunari erantzungo diote, bai egin beharreko ikerketei dagokienez, bai eskola-jazarpena izateari buruzko balioespenari dagokionez, bai ateratako ondorioetatik abiatuta garatu beharreko esku-hartzeei dagokienez.

c) Aurreko puntuetan azaldutako arrazoiengatik, jarduteko protokoloen kudeaketan hezkuntza-taldeek ezagutza partekatuan, osagarritasunean eta lankidetzan oinarritutako ikuspegia izan behar dute. Horretarako, ikuspuntu profesional desberdinak izan beharko dituzte, kasuari egokitutako hezkuntza-erantzun bat eraiki ahal izateko. Faktore horiek guztiak uztartuta, kasuak zer ezaugarri dituen eta gertatu den ingurunean nolako bilakaera duen jakiteko ikuspegi adeitsua, lasaia eta zehatza izango dugu.

d) Protokoloetan parte hartzen duten hezitzaile guztiek beren jakintza profesionalaz baliatuz jardungo dute, eta kasuaren konponbide positiboa lortzen laguntzeko behar adina esku-hartze egingo dituzte.

6.- Esku hartzen duen hezkuntza-taldearen jardueren aukera eta ikuspuntua.

Ustezko eskola-jazarpenen kasuetan esku hartzeko eskaerak kudeatzerakoan, inplikatutako hezkuntza-taldearen esku-hartzeek ikuspegi sistemiko-ekologikoa eta ikuspuntu errestauratiboa izango dituzte bidelagun, arau espezifiko hauen arabera:

a) Ikasleak eta inplikatutako pertsonak eta haien jokabideak bereiziko dira. Jarduketak ez dira izango ustezko jazarpen-portaerak izan dituzten ikasleen aurkakoak, portaera horien

aurkakoak baizik. Helburua du ikasleei laguntzea jokabide positiboak garatzen, gaitasun sozioemozionalak eskuratzen, identitate osasungarriak eraikitzen, emozioak kudeatzen, helburu pertsonalak eta kolektiboak lortzen, enpatia erakusten, laguntza-harremanak ezartzen eta mantentzen, eta erabaki arduratsuak hartzen.

b) Lankidetza-estrategiak erabiliko dira inplikatutako ikasle guztiekin, barne direla ikusle diren ikasleak eta familiak.

c) Erasoa jasan duen ikasleari babesa eta laguntza emozionala jasoko duela bermatuko zaio, bai eta beste eraso batzuk saihesteko neurriak hartuko direla ere.

d) Kasu jakinaren ezaugarrietara eta gertatu den testuinguruaren gainerako faktoreetara egokitutako esku-hartzeak egingo dira.

e) Diskrezio- eta zuhurtasun-printzipio gidariak erabiliko dira, ustezko eskola-jazarpena ez zabaltzeko edo kontroletik kanpoko egoerarik ez sortzeko.

f) Ahal dela, hain inbaditzaileak ez diren eta ohikoagoak diren ikerketa-prozedurak erabiliko dira, inbaditzaileenak edo ohiz bestekoenak alde batera utzirik.

g) Irakasleak eta ikastetxeko zuzendaritza ikasleekin bildu ahal izango dira, jarduteko protokoloa abian jartzearen ondoriozko jarduketen esparruan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

h) Eskola-jazarpenagatik esku hartzeko demanden hasierako uneetan, alderdien arteko adiskidetze- edo akordio-neurriak erabiltzea saihestuko da, erasoa jasan duten ikasleentzako arriskuak prebenitzeko.

i) Irizpide orokor gisa, ez da esku-hartze zuzenik egingo erreferentziazko talde osoarekin eta ikasle-taldeekin: jarduketa espezifikoak egingo dira ikasleekin banaka, salbu eta jarduteko protokoloaren kudeaketak beste esku-hartze bat eskatzen badu, bereziki erasoa pairatu duten ikasleak babesteko.

j) Ustezko jazarpen-jokabideak dituzten ikasleei ez zaie emango kasuari buruzko informazioa eman duten ikasleen berri.

k) Egindako kaltea erreparatzeko eta bizikidetza bere onera ekartzeko neurriak erabiliko dira.

7.- Testuinguruko aldagaiak, eskola-jazarpenaren balioespenari dagokionez.

Eskola-jazarpena definitzen duten ezaugarriekin batera —eskola-jazarpeneko balizko egoeren aurrean jarduteko protokoloan araututa daude ezaugarri horiek—, irizpide hauen arabera jardungo dute ikastetxeek jazarpena egon dela balioestean:

a) Batzuetan erraza izaten da eskola-jazarpena dagoela balioestea, baina beste batzuetan ez, kasuaren konplexutasunagatik edo ezaugarri espezifikoengatik. Egoera horietan, ikastetxeek bi ikuspegi osatuko dituzte: alde batetik, ikuspegi analitiko bat, jarduteko protokoloan araututako eskola-jazarpena definitzen duten ezaugarri guztiak sakon aztertzen dituena;

bestetik, ikuspegi global edo sintetiko bat, kasuaren inguruabar orokorrak kontuan hartzen dituena, hala nola inplikatutako ikasleen eskola-historia, eskatutako gertaeren aurrekariak eta ondoren sortutako egoerak, auziak ikasleentzat eta beren familientzat eragindako ondorioak, bai eta denboran izandako bilakaera ere.

b) Aldeak daude ikastetxeek eskola-jazarpena dagoela ondorioztatzen duten kasuen artean. Modu desberdinetan bizi dute, baita ere, eskola-jazarpena ikasle erasoek, jazarpena egiten dutenek eta ikusle diren ikasleek. Aldakortasun horrek eragina du ondorioen irismenean. Ikastetxeek eman behar duten hezkuntza-erantzunaren kalitatea ziurtatzeko, ikastetxeek kasu bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak ezagutu beharko dituzte, kasu bakoitza beste kasu batzuetatik zerk bereizten duen jakinda. Hezkuntza-erantzunak testuinguruan kokatuta egon beharko du kasu bakoitzean, egindako kaltea konpontzeko eta eskola-jazarpenak kaltetutako bizikidetza eta simetria- eta berdintasun-harremanak leheneratzeko.

8.- Ikastetxeentzako orientabideak.

Hezkuntza-arloko eskumenak dituen sailak orientabideak argitaratuko ditu jarduteko protokoloa nola erabili behar den jakiteko, ikastetxeei egin behar dituzten esku-hartzeetan laguntze aldera.

3. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU-HARTZEAK, IKASLEEN JOKABIDE SUIZIDEI AURRE EGITEKO.

66. artikulua. Xedapen orokorrak.

1.- Ikasleen jokabide suizidak prebenitzeko, hezkuntza-, osasun-, gizarte- eta komunitate-arloetako politika eta jarduketa koordinatuak behar dira. Esparru horretan, ikastetxeak espazio pribilegiatuak dira osasun mentala sustatzeko, ondoez emozionala goiz detektatzeko eta babes-estrategiak ikasteko, hala nola arrisku-faktoreak eta alarma-seinaleak ezagutzea, laguntza eskatzea eta sufrimendu-egoeren aurrean alternatibak bilatzea.

2.- Hezkuntza-eremuko prebentzioa maila anitzeko esku-hartze eredu baten arabera antolatuko da. Eredu horrek konbinatuko ditu hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako jarduketa unibertsalak, zaurgarritasun edo arrisku handieneko egoeran dauden ikasleentzako jarduketa selektiboak eta jokabide suizidak izan dituzten ikasleentzako jarduketa espezifikoak. Era berean, ikaskuntza sozioemozionaleko, komunikazio eraginkorreko eta familia-laguntzako programek eskola-adineko jokabide suizidak prebenitzen laguntzen dute.

3.- Prebentzio-jarduerek hezkuntza-printzipioak izango dituzte oinarri, osasun integrala sustatzen duten zentroak eraikitzeko: inklusioa, lotura eta kide izatea, segurtasuna, komunikazioa, inguruneareikiko lotura eta ongizate pertsonala. Printzipio horiek ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta ikaskuntza bermatu beharko dute, konfiantza- eta laguntza-harremanak gertatzeko erraztasunak eman beharko dituzte, eta kudeaketa emozionala, bizitzarako trebetasunak eta gatazken konponbide positiboa sustatu beharko dituzte.

4.- Irakasleek eta gainerako hezitzaileek funtsezko zeregina izango dute jokabide suizidak prebenitzeko, behatuz, entzunez, alerta-seinaleak detektatuz eta hezkuntza-laguntza baliatuz.

Era berean, ikasleek zaintzaren, laguntzaren eta erantzukidetasunaren kultura bat eraikitzeko inplikazio aktiboa sustatuko da.

67. artikulua. Jarduteko protokoloak.

1.- Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak jarduteko protokoloak onartuko ditu ikasleen jokabide suizidak direnean erabiltzeko, eta protokolo horietan bertan ezarritako baldintzetan aplikatuko dira ikastetxeetan.

2.- Protokoloek hezkuntza-jarduketak antolatuko dituzte, gutxienez, jokabide suizidekin, suizidio-ahaleginekin eta suizidioagatiko heriotzarekin lotutako arrisku-egoerei aurre egiteko. Jasoko dituzte, baita ere, kasu bakoitzean bete beharreko prebentzio-, detekzio-, babes-, laguntza-, komunikazio-, jarraipen- eta koordinazio-irizpide orokorrak. Protokoloa derrigorrean bete beharko da.

3.- Ikastetxeak ondoez handiko, arriskuko, suizidio-ahalegineko edo suizidioagatiko heriotzako egoera baten berri badu, dagokion protokoloan aurreikusitako jarduketak aktibatuko ditu, behar den arretaz, zuhurtziaz, konfidentzialtasunez eta koordinazioz aktibatu ere, eragindako ikasleek babesa eta hezkuntza-komunitateak arreta egokia jasoko dutela bermatzeko.

4.- Protokoloek orientabideak jaso beharko dituzte eragindako ikasleekin, haien familiekin eta, hala dagokionean, erreferentzia-taldearekin komunikatzeko, bai eta inplikatutako pertsonen intimitatea babesteko, informazioa beharrik gabe zabaltzea saihesteko eta hezkuntza-komunitatean ondorio kaltegarriak prebenitzeko ere.

5.- Suizidio-arrisku edo -saiakera baten ondoren ikasleak ikastetxera itzuli behar badira, hezkuntza-jarduketek trantsizio progresiboa, segurua eta lagundua gertatzen lagundu beharko dute, eta hezkuntza-prozesuaren jarraitutasuna eta familiarekiko eta zerbitzu eskudunekiko koordinazioa gertatuko direla bermatu beharko dute.

6.- Suizidioagatiko heriotza-egoeretan, ikastetxeak aplikatu behar den protokoloaren arabera jardungo du, eta arreta berezia jarriko du ikasleei eta ikastetxeko langileei emango zaien konpainia-zerbitzuan, informazioaren kudeaketa arduratsuan eta arrisku-egoera berrien prebentzioan.

7.- Protokoloen eduki teknikoa, laguntza-tresnak, dokumentu-ereduak, jarduketa-, trantsizio- edo birgizarteratze-plan espezifikoak eta egoera bakoitzean hezkuntzan esku hartzeko orientabideak hezkuntza-arloan eskumena duen sailak onartzen dituen protokolo, orientabide edo gidetan ezarriko dira.

VII. KAPITULUA: HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO NEURRIAK, ELKARBIZITZA POSITIBOA ASALDATZEN DUTEN IKASLEEN JOKABIDEEN AURREAN JOKABIDEAK ALDATZEKO DIRENAK.

1. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK.

68. artikulua. Irizpide orokorrak.

1.- Bizikidetza kudeatzea da irakasleen eta gainerako hezitzaileen zeregin profesional nagusietako bat haien hezkuntza-arloko esku-hartzeetan.

2.- Bizikidetza nahasten duten egoerak gertatzen direnean, arduraz eta aktiboki esku hartuko da bizikidetza positiboa bere onera ekartzen lagunduko duten konponbide errestauratiboak eta erreparatzaileak ahalbidetzeko.

3.- Ikastetxeek kapitulu honetan ezarritako prozedurak erabiliko dituzte, elkarbizitza positiboa nahasten duten ikasleen jokabideen aurrean jokabidea aldatzeko hezkuntza-esku hartzeko neurriak aplikatu behar direnean, behin IV. kapituluko 1. atalean aurreikusitako hezkuntza-esku hartzeak abian jarri ondoren eta haiek espero zen emaitza eman ez dutenean.

4.- Jokabideak aldatzeko hezkuntzaren arloko esku-hartzeko neurriak soilik kasu hauetan erabil daitezke: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak daudenean.

5.- Ikasleek izandako jokabideen ondorioz jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko prozedura bat irekitzen bada, irizpide orokor hauen arabera jardungo da:

a) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriek helburu hezigarria izango dute beti, bai aldatu behar den jokabidea izan duen ikaslearentzat, bai gainerako ikasleentzat. Ezingo da aplikatu ikasleen osotasun fisikoaren edo duintasun pertsonalaren aurkako neurririk.

b) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko prozesuak ohiko hezkuntza-prozesuaren parte izango dira. Horrelako esku-hartzea behar duten portaerak dituzten ikasleek modu positiboan erlazionatzen ikasi behar dute. Horregatik, esku hartzeko prozesua bizikidetza positiboari lotutako gaitasunak lortzeko estrategia bat gehiago izango da.

c) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak ikaslearen portaerak ekarri duen hezkuntza-ondorio gisa planteatuko dira, eta, beraz, izandako jokabideari lotuta egongo dira, arbitrariotasun oro baztertuta.

d) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriek printzipio hauek izango dituzte gidari: berehalako eta gutxieneko esku-hartzea, agertutako portaeren larritasunarekiko proportzionala, eta ikaslearen adinari, egoera pertsonalei, familiarrei, sozialei eta jokabideak gertatu diren testuinguruari egokitzea.

e) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriek ikasleen hezkuntza-prozesuak aurrera jarraituko duela bermatu behar dute, haien prestakuntza-prozesuan galerarik izan gabe. Neurri horiek aplikatzen direnean, ikasle bakar bati ere ezingo zaio ebaluazio jarraiturako eskubidea kendu, ez eta jarduerak, zereginak eta lanak entregatzeko eta probak eta azterketak egiteko eskubidea ere.

6.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduretan, ikastetxeetako irakasleek egiaztatutako egitateek froga-balioa izango dute eta egiazkotasun-presuntzioa, aurkakoa frogatu ezean, hargatik eragotzi gabe ikasleek edo haien legezko ordezkariek beren eskubideak edo interesak defendatzeko adierazi edo aurkeztu ditzaketen frogak.

7.- Antolamendu- eta funtzionamendu-araudiek arautuko dute ikasleek eta, adingabeak badira, haien gurasoek edo legezko tutoreek nola ezagutuko dituzten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak, erabili aurretik. Informazio hori guztia ikasturte bakoitzaren hasieran eman beharko da.

69. artikulua. Jokabideen sailkapena.

Honela sailkatzen dira jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien beharra izan dezaketen ikasleen jokabideak:

a) Jokabide desegokiak.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabideak.

c) Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

70. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien beharra izan dezaketen jokabideen zerrenda.

1.- Honela sailkatzen dira jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien beharra izan dezaketen ikasleen jokabideak:

a) Justifikatu gabeko absentziak eta justifikatu gabeko puntualtasun-faltak.

b) Ikasteko eta eskola-jarduerak egiteko betebeharra ez betetzea, bai eta gainerako ikasleek edo irakasleek ikastea zailtzen edo eragozten duten jokabideak izatea ere.

c) Ikastetxean adostutako bizikidetza-konpromisoak ez betetzea.

d) Irakasbizitzaren barruan beste norbaiten nortasuna hartzea eta agiriak eta material akademikoa faltsutzea edo ebastea.

e) Ikastetxeko edo hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuen ekipamenduak eta tresnak baimenik gabe erabiltzea.

f) Ikastetxeko edo hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuen ondasunak hondatzea, kaltetzea edo narriatzea, bai eta ondasunak ostea edo lapurtzea ere.

g) Zentroko langileekiko diziplinarik eza, desobedientzia edo mendekotasunik eza beren eginkizunak betetzean, gobernu-organoen erabakiak edo hezkuntza-arloan esku hartzeko neurriak ez betetzea jokabideak aldatzeko, eta bizikidetza aldatzen duten jokabideak egitera bultzatzea.

h) Substantzia debekatuak kontsumitzea edo substantzia horiek kontsumitzera bultzatzea.

i) Tratu desegokiak, begirunerik eza, mespretxuak, gutxiespenak, isekak, barregarri uztea, irainak edo esaldi iraingarriak, mespretxuzkoak, laidogarriak edo erasokorrak.

j) Gizarte-bazterketa edo -marjinazioa.

k) Hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuk eragozteko edo zerbait egitera behartzeko jokabideak, hala nola larderia, xantaia, mehatxuak edo hertsapenak.

l) Portaera oldarkorrak, istiluak edo ordena-nahasmenduak eskola-zerbitzuetan, jarduera osagarrietan edo eskolaz kanpokoetan, edo hezkuntza-jarduerarekin lotutako beste espazio batzuetan.

m) Eraso-saiakerak, eraso-mehatxuak edo erasoak.

n) Jokabide autolesiboak eragitea.

ñ) Diskriminazioa, isekak, umiliazioak edo pertsonen duintasunaren aurkako jokabideak.

o) Beste pertsona batzuen ohorerako, intimitaterako edo irudirako eskubidea ez errespetatzea, irudiak, artxiboak, testuak edo soinuak grabatuz, manipulatuz, publiko eginez edo zabalduz, bai eta identitatea ordeztuz ere.

p) Sexu-jazarpena, sexu-erasoak edo emakumeen aurkako indarkeria.

q) Eskola-jazarpena edo eskola-ziberjazarpena.

r) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea edo betebeharrak betetzea eragozten duen beste edozein.

s) Arau-hauste penala izan daitekeen beste edozein jokabide.

2.- Jokabidearen kalifikazioa eta jokabideak aldatzeko aplikatu beharreko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria zehazteko, ikastetxeetako arduradunek, besteak beste, irizpide hauek erabiliko dituzte:

a) Izandako jokabidearen eta egindako kalte moral edo materialen larritasuna.

b) Norberaren betebeharretan eta hezkuntza-komunitateko gainerako pertsonen eskubide eta betebeharretan izan duen eragina. Ikasleek beren betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitzat. Ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea edo betebeharrak betetzea eragozten badu, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria egiten dion jokabidetzat jo ahal izango da, jokabidearen larritasunaren, intentsitatearen eta inguruabarren arabera.

c) Botere- edo posizio-abusua.

d) Mina egiteko asmoa.

e) Aldez aurretik pentsatuta edo adostuta egotea.

f) Jokabidea errepikatzea.

g) Jokabidearen publizitatea edo hedapena.

h) Jokabideak hezkuntza-komunitatean eragindako alarma.

71. artikulua. Ikastetxetik kanpo izandako jokabideengatiko edo ekintzengatiko erantzukizuna.

Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien beharra izan dezaketen jokabideak dagokien prozeduraren xede izango dira, baldin eta eskola-esparrutik edo eskola-ordutegitik kanpo gertatu badira eta eskola-jarduerarekin kausa-efektu erlazioa dutela egiaztatu bada.

72. artikulua. Eragindako kalteak erreparatzea.

1.- Ikasleek, banaka edo taldeka, nahita edo zabarkeriaz, kalteak eragin badizkiete beste pertsona batzuen ondasunei —hezkuntza-komunitateko kide izan zein ez—, edo ikastetxearen ondasunei, egindako kaltea erreparatzeko obligazioa izango dute edo kalte hori erreparatzeko kostu ekonomikoa beren gain hartzekoa.

2.- Ikastetxearen edo beste pertsona batzuen —ikastetxeko kide izan zein ez— ondasunak ebatsi edo lapurtu dituzten ikasleek itzuli egin beharko dute ebatsitakoa edo lapurtutakoa.

3.- Nolanahi ere, ikasleen gurasoak edo legezko tutoreak izango dira erantzule zibilak, indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan.

73. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak proportzionaltasunez aplikatuko direla bermatzeko irizpideak.

1.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatu behar direnean, irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Ikaslearen adina eta jokabidea gertatu zen testuinguruaren inguruabarrak.

b) Ikaslearen jokabidean eragina izan duten ikaslearen egoera pertsonal, familiar eta sozialak; horien bidez balioetsi ahalko da zuzen ikaslearen betebeharrak ez betetzeak zenbateko garrantzia izan duen eta bizikidetzari lotutako gaitasunetan zer hutsune dituen.

2.- Neurri ez hain murriztaileak aplikatzeko aukera ematen dute inguruabar hauek, gutxienez:

a) Jokabideak eragin duen kaltea berez onartzea, edo, bestela, egindako kalte materialak zein moralak berez ordaintzea edo ordaintzeko konpromisoa hartzea.

b) Aldez aurretik jaso ez izana jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurririk.

c) Hainbesterainoko gaitz, min edo kalte larria eragiteko asmorik ez izatea.

d) Eraso fisikoa izan bada, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3.- Neurri murriztaileagoak aplikatzeko aukera ematen dute inguruabar hauek, gutxienez:

a) 71. artikuluaren 2. apartatuan araututako irizpideren bat intentsitate handiz gertatzea.

b) Jokabidea eragin duten egintzak edo ez-egiteak egoera hauetan dagoen pertsona baten aurka egitea: adingabea, desgaitasuna duena, gutxiagotasun fisikoa duena, duela gutxi ikastetxean hasi dena edo beste inguruabar zaurgarri bat duena, edo botere-abusua edo posizio-abusua duena.

c) Esku hartuko den jokabidea osatzen duten egintzak edo ez-egiteak taldean egitera bultzatzea edo akuilatzea.

74. artikulua. Prozedurak hasteko gehieneko epeak.

Ez da prozedurarik hasiko jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko, kasu hauetako bat gertatzen denean:

a) Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogei egun baino gehiago igaro direnean.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei egun baino gehiago igaro direnean.

c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik hogei egun baino gehiago igaro direnean.

75. artikulua. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduren epeak.

1.- Hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adierazita daudela ulertuko da.

2.- Ondorio horietarako, eskola-egunak izango dira egun baliodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren 1etik ekainaren 30era, oporraldiak eta ikastetxean onartutako egutegi ofizialean ageri diren ikastetxeko jaiak izan ezik.

76. artikulua. Ebaluazio jarraitua egin ezin izatea, etengabe bertaratze-hutsegiteak egiteagatik.

1.- Alde batera utzi gabe dekretu honen arabera jokabideak aldatzeko hezkuntzako esku-hartze neurriak aplikatzea, ikasleei ezin bazaizkie aplikatu indarrean dagoen araudiaren arabera onartutako etengabeko ebaluaziorako metodoak eta irizpideak, bertaratze-falta asko gertatu direlako, ikasle horiek dagozkien azken probak eginez ebaluatu beharko dira.

2.- Ikastetxeek beren programazioetan ezarriko dituzte proba horien ezaugarriak, eragindako arlo, ikasgai, esparru edo modulu bakoitzaren izaeraren arabera, betiere proba horiek arautzen dituen araudi espezifikoan xedatutakoa betez.

77. artikulua. Eskola-kontseiluari eta irakasleen klaustroari bizikidetzaren aurkako jokabideei eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideei buruzko informazioa ematea.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, eskola-kontseiluak eta irakasleen klaustroak bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak ezagutuko dituzte, bai eta aplikatutako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak ere, haiek indarrean dagoen araudiarekin bat etor daitezen zaintzeko eta, nolanahi ere, adingabeen ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak babesteko, informazioa modu erreserbatuan tratatuz eta ikasleak identifikatzea saihestuz beharrezkoa ez denean.

78. artikulua. Polizia-zerbitzuetan edo organo judizialetan salaketa bat jartzen denean ikastetxeak egin beharreko jarduketetarako irizpideak.

Polizia-zerbitzuetan edo organo judizialetan salaketa jarri bada ikastetxeetan izandako gertaerengatik edo ikastetxeetatik kanpo gertatu baina eskola-jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatu denengatik, arau hauen arabera jokatuko dute ikastetxeek:

1.- Polizia-zerbitzuekin edo organo judizialekin elkarlanean arituko dira kasua ebazteko, eta eskatzen zaizkien agiriak edo bestelako froga-elementuak aurkeztuko dituzte.

2.- Ikasle guztien segurtasuna zaintzeko eta bizikidetza positiboa mantentzeko lanean jarraituko dute. Kasua egoitza judizial edo polizialean egon arren, ikastetxeek ikasleen zaintza- eta jagoletza-betebeharrean duten erantzukizunari eutsiko diote, indarrean dagoen araudiaren arabera, bereziki haien segurtasun eta osotasun fisiko eta psikikoari dagokionez.

79. artikulua. Dekretu honetan arautzen diren prozeduretako datu pertsonalak tratatu, babestu eta kentzea.

1.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurei buruzko datuak dagokion prozeduraren dokumentazioan baino ez dira sartuko, eta ez dira jasota egongo ikasleen ikasketa-espedientean, ez eta ikastetxeko historia, fitxategi edo erregistro iraunkorretan ere, aplikatu beharreko araudian berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik. Datuak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera kontserbatuko dira, eta, hala badagokio, beste ikastetxe bati jakinarazi edo lekualdatuko zaizkio, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia eta datuak minimizatzeko printzipioa erabat errespetatuz.

2.- Prozeduraren izapide guztietan, prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak bermatu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere. Sortutako dokumentazioa isilpekoa izango da, eta beren eginkizunak direla-eta ezagutu behar duten pertsonek baino ez dute izango hura eskuratzeko bidea, eta guztiek konfidentzialtasun- eta isilpekotasun-betebeharra izango dute.

3.- Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, eta datu pertsonalak behar den baino denbora gehiagoz kontserbatzen ez direla bermatzeko, dekretu honetan araututako prozeduretan sortutako dokumentazioa behar den denboran baino ez da gordeko, datuak biltzea eragin zuen xederako eta, hala badagokio, sor daitezkeen erantzukizunei, erreklamazioei, errekurtsoei edo jarraipen-jarduketei erantzuteko. Oro har, eta aplikatzekoa den araudiaren arabera gehiago kontserbatu behar diren

kasuak alde batera utzi gabe, epe hauetan ezabatuko dira:

a) Prozedura gertatu den ikasturtea amaitzean, jokabide desegokiak edo bizikidetzaren aurkako jokabideak direnean.

b) Prozedura gertatu den ikasturtearen hurrengoa amaitzean, bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak direnean.

4.- Ikastetxeak jakiten badu jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozeduretan dokumentatutako egitateek edo jokabideek jarduketa polizialak, fiskalak edo judizialak eragin dituztela, dokumentazioa gorde eta, hala badagokio, ezabatuko da datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, eta, bereziki, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 17. artikuluan aurreikusitako ezerezte-eskubidearen mugen arabera. Kasu horietan, dokumentazioa behar den denboran gordeko da erreklamazioak egiteko, baliatzeko edo defendatzeko, bai eta agintaritza eskudunek egin ditzaketen errekerimenduei erantzuteko ere, harik eta egiaztatzen den arte jarduketa horiek behin betiko amaitu direla edo, hala badagokio, irmoa dela dagokion prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

2. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU HARTZEKO NEURRIAK APLIKATZEA JOKABIDE DESEGOKIAK ETA BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ALDATZEKO.

80. artikulua. Jokabide desegokiak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak. Aplikazio-prozedura.

1.- Jokabide desegokiak daudenean neurri hauetako bat edo batzuk erabil daitezke:

a) Aktiboki eta positiboki parte hartzea bitartekotza-prozesuan edo prozesu errestauratiboan, egindako kalte moralak edo materialak erreparatzeko eta kaltetutako harremanak bere onera ekartzeko, dekretu honen 25., 26., 27. eta 28. artikuluen arabera.

b) Erreferentzia-taldetik kanpoko ikaskuntza-jarduerak, dekretu honen 35. artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera.

c) Jokabide desegokiarekin lotutako zereginak egitea, dekretu honen 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Zeregin horiek egitea erabaki duten irakasleek gainbegiratuko dituzte zuzenean zeregin horiek.

d) Baimendu gabeko objektuak edo substantziak aldi baterako kentzea, ikastetxeko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian zehazten denaren arabera, ikaslearen familiarekin bilera bat egin arte.

2.- Ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, hezkuntza-arloko esku hartzeko beste neurri batzuk zehaztu ahal izango dituzte beren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian, dekretu honen 69. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen direla bermatuta beti.

3.- Aplikazio-prozedura.

a) Indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, ikastetxeko zuzendariak du

jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko eskumena. Zuzendariak eskumena eskuordetu ondoren, hark zehazten dituen irakasleek izango dute eskumena, ikaslearen tutorearekin koordinatuta, eragindako ikasleei eta ikastetxe publikoetako ikasketa-burutzari edo itunpeko ikastetxeetan eginkizun baliokideak betetzen dituen pertsonari entzun ondoren.

b) Portaera desegokien aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku-hartze kasuetan, baldin eta neurriaren izaera mugatzailea dela-eta inplikatutako irakasleek eta titulartasun publikoko ikastetxeetako ikasketaburuak edo itunpeko ikastetxeetan eginkizun baliokideak dituen pertsonak hala irizten badiote, idatziz jakinarazi beharko zaizkio ikasleari, eta, adingabea bada, gurasoei edo legezko tutoreei, gertatutako egitateak eta aplikatutako hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria. Komunikazio-agiria hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria aplikatzeko ardura duenak bete beharko du, eta ikasketaburuak gainbegiratuko du.

c) Jokabide desegokiak izan direnean, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien aurka ezin izango da erreklamaziorik jarri administrazio-bidean.

d) Ikastetxeek beren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian zehazten badute jokabide desegokien aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedura, bermatu beharko dute, nolanahi ere, dekretu honen 69. artikuluan eta apartatu honetan bertan ezarritako irizpideak aplikatzen direla.

81. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

1.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak daudenean neurri hauetako bat edo batzuk erabil daitezke:

a) Bizikidetza positiborako eta hari lotutako jokabide- edo portaera-ereduak barneratzeko beharrezkoak diren gaitasunei buruzko ikaskuntzak egitea. Aktiboki eta positiboki parte hartzea bitartekotza-prozesuan edo prozesu errestauratiboan, egindako kalte moralak edo materialak erreparatzeko eta kaltetutako harremanak bere onera ekartzeko. Idatziz, bizikidetza positiborako konpromiso bat hartzea.

b) Baimendu gabeko objektuak edo substantziak aldi baterako kentzea, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian zehazten denaren arabera, ikaslearen familiarekin bilera bat egin arte.

c) Ohartarazpena. Ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko tutoreak aurrean daudela egingo da.

d) Azterketa, proba edo ariketa baliogabetzea kopiatu duten ikasleei edo beste ikasle batzuei azterketa, proba edo ariketa kopiatzeko aukera eman dietenei, ikastetxeak Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian ezartzen duenari jarraituz.

e) Ikastetxeko espazio eta baliabide jakin batzuen erabilera mugatzea, gehienez hamar eskola-egunetan.

f) Ikastetxean, eskola-ordutegian edo eskola-ordutegitik kanpo, lan hezigarriak edo egindako kalte moral edo materialak erreparatzeko edo, hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak diren lanak egitea, gehienez ere 10 eskola-egunetan. Eskola-ordutegitik kanpo egin behar badira lan horiek, ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi behar zaie horren berri.

g) Ikastetxetik kanpo egiten diren jarduera osagarrietan edo ikastetxean bertan edo handik kanpo egiten diren eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea ematea, gehienez ere 20 eskola-egunetan neurria hartzen denetik aurrera. Jarduera osagarrien kasuan, ikasleak ordezko beste jarduera batzuk egingo ditu ikastetxean bertan.

h) Ohiko taldearen ikasgelaz bestelako espazio batean egitea eskola-jarduerak, ikastetxeko irakasleen kontrolpean, gehienez ere hiru saiotan, elkarbizitza nahasi duen jokabidea izan duen irakasleak emandako arlo, ikasgai edo moduluetan. Denbora horretan, ikasleak ikastetxean egin beharko ditu ikasketaburuak —titulartasun publikoko ikastetxea bada— edo antzeko eginkizunak dituenak —itunpeko ikastetxeen kasuan— zehazten dituen prestakuntza-jarduerak, hezkuntza- eta ebaluazio-prozesua eten ez dadin. Jarduerak aldez aurretik horretarako planifikatutako espazioetan egingo dira, eta, beraz, salbuespenez kanporatuko dira ikasleak jarduera egiten den espaziotik. Nolanahi ere, kanporatze horiek justifikatu egin beharko dizkiote hezitzaileek ikasketaburuari edo, itunpeko ikastetxeen kasuan, antzeko eginkizunak dituenari.

i) Gehienez ere hogei eskola-egunetan jantokia edo eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea ematea, jokabidea zerbitzu horietan gertatu bada.

2.- Ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, hezkuntza-arloko esku hartzeko beste neurri batzuk zehaztu ahal izango dituzte beren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian, dekretu honen 69. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen direla bermatuta beti.

82. artikulua. Aplikazio-prozedura.

1.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, ikastetxeko zuzendariak du jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko eskumena. Zuzendariak eskumena eskuordetu ondoren, aurreko artikuluan aurreikusitako neurri guztietarako eskumena izango dute zuzendaritzak zehazten dituen irakasleek, ikaslearen tutorearekin koordinatuta, eta behin entzunda titulartasun publikoko ikastetxeetako ikasleei eta ikasketa-burutzari edo itunpeko ikastetxeetan eginkizun baliokideak betetzen dituen pertsonari.

2.- Dekretu honen 71. artikuluaren 1. apartatuan zerrendatzen diren bizikidetzaren aurkako jokabideetakoren bat izaten denean soilik aplikatu ditzakete dagokion arduradunek jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

3.- Dekretu honen 82. artikuluaren 1. apartatuaren a) puntutik i) puntura bitartean aipatzen diren bizikidetzaren aurkako jokabideengatik egiten diren hezkuntza-arloko esku-hartze guztietan, beharrezkoa izango da ikasleari idatziz jakinaraztea, jokabidearen berri izan eta gehienez ere hiru eskola-eguneko epean, eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei. Jakinarazpen-dokumentuak zehaztapen hauek egingo ditu:

a) Zer jokabide izan duen, objektiboki deskribatuta, eta ikastetxeko bizikidetzaren aurkako zer jokabideren barruan sartzen den.

b) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko zer esku hartzeko neurri aplikatuko diren.

c) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatu aurretik bitartekotza-prozesu edo prozesu errestauratiboa egiterik badagoen. Salbuetsita geratzen da dekretu honen 82. artikuluaren 1. apartatuaren c puntuan aurreikusitako neurriari dagokion kasua.

d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena zer organok duen eta zein arauk esleitzen dion ahalmen hori.

e) Jokabidea aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriaren aplikazioa errekurritzeko zer aukera dagoen.

4.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria aplikatu aurretik, titulartasun publikoko ikastetxeetako ikasketa-buruak edo itunpeko ikastetxeetan eginkizun baliokideak dituen pertsonak jokabideari modu hezigarrian heltzeko ahalegina egingo du, bitartekotza- edo errestaurazio-prozesu baten bidez, ikasleek eta, adingabea izanez gero, haien gurasoek edo legezko tutoreek beren borondatez onartutako neurrien bidez, arau hauen arabera:

a) Zentroko BAT taldeak edo bitartekotza-eginkizunak betetzen dituenak bitartekotza-prozesuan edo prozesu errestauratiboan kolaboratuko du, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian zehazten denaren arabera.

b) Bitartekotza-prozesuan edo prozesu errestauratiboan, dokumentu batean jasoko dira idatziz, eta alderdiek berretsiko dituzte, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak eta prozesu horren ondoriozko proposamenak, zeinak ikasleak eta, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko tutoreek onartuak izango baitira.

c) Bitartekotzan proposatutako neurriak onartzen ez badira edo, onartu ondoren, betetzen ez badira, hasiera batean jakinarazpen-idazkian proposatutako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatuko dira.

5.- Sortutako dokumentazioa —bitartekotza edo prozesu errestauratiboa izan denean eta ez denean— ikastetxeko zuzendaritzari entregatuko zaio, artxiba dezan dekretu honen 80. artikuluan araututako baldintzetan.

6.- Bizikidetzaren aurkako jokabideen aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurri guztietan, ikasleak eta, adingabea izanez gero, haren gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea izango dute neurria aplikatzeko ardura duen pertsonak entzun diezaien eta haien iritzia idatziz jaso dadin. Iritzi hori dokumentazioari erantsiko zaio.

7.- Neurriak berrikusteko eta betearazteko eskaera:

a) Dekretu honen 82. artikuluaren 1. apartatuaren a) puntutik i) puntura jasotako

bizikidetzaren aurkako jokabide baten aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzen zaizkien ikasleek, eta, adingabeak badira, haien gurasoek edo legezko tutoreek neurri horiek aplikatzearekin ados ez daudela adierazi ahal izango dute, gehienez ere bi eskola-eguneko epean, neurri horiek jakinarazten direnetik aurrera. Desadostasun hori ikastetxeko zuzendariari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez adieraziko da, eta hark, aurkeztutako alegazioak aztertu eta baloratu ondoren, ebazpen bidez berretsi edo zuzenduko du aplikatu beharreko neurria, eskola-egun bateko epean, behar bezala justifikatutako egoeretan izan ezik.

b) Dekretu honen 82. artikuluaren 1. apartatuko neurriren bat ezartzen duen zuzendariaren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, berehala betearaztekoa izango da, eta idatziz jakinaraziko zaio ikasleari, eta, adingabea izanez gero, haren gurasoei edo legezko tutoreei.

8.- Ikastetxeek erabakitzen badute beren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian zehaztea bizikidetzaren aurkako jokabideen aurrean jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko jarraitu beharreko prozedura, bermatu beharko dute, nolanahi ere, dekretu honen 69. artikuluan eta apartatu honetan bertan ezarritako irizpideak aplikatzen direla.

3. ATALA: HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU HARTZEKO NEURRIAK APLIKATZEA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK ALDATZEKO.

83. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

1.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan, bizikidetzaren aurkako jokabideetarako aurreikusitako hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrietako bat edo batzuk aplikatu ahal izango dira, eta, gainera, hauetako bat ere bai:

a) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

b) Eskola-ordutegiaren barruan edo handik kanpo lan hezigarriak egitea edo egindako kalte materialak erreparatzeko zereginak edo, hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzen eta garatzen lagundu dezaketenak, baldin eta bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideekin erlazioa badute, gehienez ere hiru hilabetez.

c) Arlo, ikasgai edo modulu bateko edo gehiagotako eskoletara joateko eskubidea etetea, edo, salbuespenez, ikastetxera joatekoa; gehienez ere, bi kasuetan 15 eskola-egunez. Etenaldiak dirauen bitartean, ikasleak beharrezkoak diren prestakuntza-jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza- eta ebaluazio-prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan-plan bat diseinatuko da, titulartasun publikoko ikastetxeetako ikasketa-buruek edo itunpeko ikastetxe pribatuetan antzeko eginkizunak betetzen dituzten pertsonek koordinatua eta gainbegiratua. Plan horretan dauden jardueren jarraipena egingo dute inplikatutako irakasleek, eta kontuan hartuko dira ebaluazioan. Halaber, aldi horretarako programatutako ebaluazio-probak egin ahal izango ditu ikasleak.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, edo jantokia edo eskola-garraioa erabiltzekoa, gehienez ere 30 eskola-egunetan, baldin eta aipatutako jarduerak egiten edo zerbitzuak erabiltzen ari zela izan baditu ikasleak jokabide horiek.

2.- Aurreko neurriei buruz erabakitzean, ikastetxeko zuzendaritza, hezkuntza-taldearekin koordinatuta, saiatuko da hartutako neurriek, batez ere ikastetxera joateko eskubidea eteteak, areagotu ez dezaten absentismo-arriskua, eskola-uztea edo familia-eremuko babesgabetasuna. Ikastetxeak jakiten badu hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriren bat aplikatzearen ondorioz adingabe bati eragin diezaioketen mota horretako inguruabarrak gertatzen direla, ebidentziak jakinaraziko dizkie oinarrizko gizarte-zerbitzuei.

84. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1.- Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan, zuzendariak, gertaeren larritasuna kontuan hartuta beharrezkotzat jotzen duenean, behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ikastetxeko jarduerak behar bezala garatzen direla bermatzeko. Neurri horien artean, honako hauek sar daitezke: eskola batera edo guztietara edo ikastetxera, oro har, joateko eskubidea aldi baterako etetea; taldea behin-behinean aldatzea; jantokia edo eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea; edo jarduera osagarrietan edo eskolaz kanpoko jardueretan gehiago ez parte hartzea.

2.- Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte mantendu ahal izango dira, eta ezingo dira izan aplikatu litezkeen jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak baino astunagoak. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara joateko eskubidea kendua duen denbora guztia zenbatuko da azkenean aplikatuko den jokabide-aldaketarako hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria betetzeko.

3.- Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adingabeak badira, haien guraso edo legezko tutoreei jakinaraziko zaie behin-behineko zer neurri ezarri zaizkien.

85. artikulua. Ikastetxez aldatzeko proposamena.

1.- Kasu hauetan proposa daiteke ikastetxez aldatzea:

a) Ikasleari, gutxienez hiru aldiz, hezkuntza-arloko esku-hartzea egin zaionean bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideengatik, jokabide horietakoren bat adiskidetze-prozeduraren bidez izapidetu bada ere, baldin eta jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeak jokabide horiek birbideratzea ahalbidetu ez badu.

b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea berdinen arteko bideratu gabeko jazarpen-egoera bat bada, edo sexu-jazarpena, sexu-erasoak edo emakumeen aurkako indarkeria. Era berean, jokabide horrek hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen duintasun pertsonalaren aurka egiten duenean, jatorria edo ondorioa generoan, sexu-orientazioan edo -identitatean, arraza- edo etnia-jatorrian, erlijioan, sinesmenetan edo desgaitasunean oinarritutako diskriminazioa edo jazarpena denean, edo ezaugarri pertsonalak, sozialak edo hezkuntzakoak direla-eta ahulenak diren ikasleen aurka egiten denean.

c) Ikastetxeko irakasle bati edo hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei eraso egin bazaie.

2.- Aurreko apartatuan adierazitako jokabideetakoren bat izan duen ikaslea adin nagusikoa bada edo nahitaez eskolatuta egoteko urteak bete baditu, ikaslea urrutiko edo gaueko ikasketak egiten diren ikastetxe batera edo helduen hezkuntzetako ikastetxe batera aldatzea proposa daiteke.

3.- Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkariari helaraziko zaio, eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du ordezkari horrek, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

86. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak.

1.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko organo eskuduna.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, ikastetxeko zuzendariak du, bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak daudenean, jokabideak aldatzeko hezkuntzaren arloko esku-hartzeko neurriak aplikatzeko eskumena.

2.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko mugak.

Dekretu honen 71. artikuluaren 1. apartatuan zerrendatzen diren bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideetakoren bat izaten denean soilik aplika ditzakete zuzendariek jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

3.- Adiskidetze-prozedura eta prozedura orokorra.

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideak daudenean, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko prozedurak adiskidetze-prozeduraren edo prozedura orokorraren bidez izapidetu ahal izango dira

4.- Adiskidetze-prozedura, lehentasunezkoa.

a) Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabideren bat gertatzen denean, zuzendaria hari modu hezitzailean heltzen saiatuko da, adiskidetze-prozeduraren bidez, ikasleak bere borondatez onartutako neurrien bidez, eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek onartutako neurrien bidez.

b) Adiskidetze-prozeduraren helburua honako hau da: jokabidea adierazi duen ikaslearen eta haren familiaren inplikazioa eta konpromisoa bultzatzea, erasoa jasan duen pertsonari eragindako kaltea eta eragindako kalte materialak konpontzea ahalbidetzea, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak adostea eta berehala aplikatzen laguntzea.

c) Prozedura hasteko egintzan, zuzendariak ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei eskainiko die adiskidetze-prozedurara jotzeko aukera, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

Lehenengoa. Bizikidetzari kalte larria egiten dion jokabidearen ardura duen ikasleak bere jokabidearen larritasuna onartzea, egindako kalte material eta morala konpontzeko prest egotea eta prozeduran jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloan esku hartzeko neurriak betetzeko konpromisoa hartzea.

Bigarrena. Kaltetuen aurrean erakuts dezala onartu egiten duela izandako jokabideak eragindako kaltea, eta konpromisoa hartzen duela izaera bereko jokabideak berriro ez izateko.

5.- Adiskidetze-prozedura noiz ezingo den erabili: Kasu hauetan ezingo da erabili:

a) Arau batek berariaz debekatzen duenean; hala gertatzen da Adingabearen Erantzukizun Penalaren urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 19. artikuluaren 2. apartatuan araututako kasuetan.

b) Jokabidea larritasun berezi eta nabarmenekoa dela ikusten denean, hala nola eskola-jazarpen kasuetan, edo zuzendaritzak beste inguruabar batzuk ikusten dituenean, eta inguruabar horiek objektiboki zailtzen dutenean adiskidetze-prozeduraren helburuak lortzea, hala nola gatazkan igoera handia izatea edo indar-orekarik ez egotea erasoa jaso duenaren eta erasotzailearen artean.

c) Ikasturte berean edo aurrekoetan ikasle berarekin adiskidetze-prozedura dagoeneko erabili denean bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide batean hezkuntza-arloan esku hartzeko. Salbuetsita egongo da, halaber, aurretik adiskidetze-prozedura erabili bada eta ikasleak lortu diren akordioak bete ez baditu.

d) Jokabidearen erantzule den ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek adierazten dutenean ez dutela nahi adiskidetze-prozedurara bildu.

e) Ikasleak adiskidetze-prozeduran hartu den neurriari uko egiten dionean.

6.- Prozedura orokorra.

Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria aplikatzeko prozedura orokorraren kasuan, ikastetxeko zuzendariak pertsona bat izendatuko du prozeduraren instrukzio-egile izan dadin.

7.- Instrukzio-egilea izendatzea, prozedura orokorraren kasuan.

Instrukzio-egilearen izendapena arau hauen arabera egingo da:

a) Zuzendariak instruktore bat izendatuko du ikastetxeko irakasleen artean edo zuzendaritza-taldeko kideen artean, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiak zehazten dituen arauen arabera.

b) Horretarako izendatzen den pertsonak izendapena onartu beharko du, abstenitzeko legezko arrazoirik ez badago, behintzat; hala bada, formalki egin beharko dio uko izendapenari.

c) Instruktoreak abstentzio-idazkia aurkezten badu izendatu eta hurrengo eskola-eguneko

epean, zuzendariak, alegatutako arrazoiak aztertu ondoren, beste instruktore bat izendatuko du, arrazoi horiek oinarria dutela uste badu. Bestela, hasierako izendapena egokia dela berretsiko du.

Zailtasun bereziko kasuetan, zuzendariak idazkari-lana egiteko pertsona bat izenda dezake, instrukzio-egileari laguntzeko.

8.- Instrukzio-egilea errekusatzeko aukera, prozedura orokorrean.

Ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek instruktorea errekusatu ahal izango dute, baldin eta errekusatzeko legezko kausaren bat badago, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan (abstentzioari buruzkoa) eta 24. artikuluan (errekusazioari buruzkoa) ezarritakoaren arabera. Hala bada, 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo da.

9.- Prozedura orokorreko instrukzio-egilearen jarduketak.

a) Ikasleen jokabideak egiaztatzeko eta jokabideen larritasuna eta ikasleen erantzukizuna zehazteko egokitzat jotzen dituen eginbide guztiak egitea.

b) Instrukzioan bere eskura jarritako dokumentuak eta gauzak zaintzea.

c) Ikastetxeko zuzendaritzari proposatzea egokitzat jotzen dituen behin-behineko neurriak har ditzala, bai eta jokabideak aldatzeko hezkuntzako esku-hartze neurriak ere, prozedura orokorraren bidez aplikatu behar direnak, eta, hala badagokio, adiskidetze-prozeduran erabakitzen diren erreparazio-neurriak.

d) Hala badagokio, ikastetxeko zuzendaritzari jarduketak artxibatzeko proposatzea, baldin eta egindako ikerketen ondoren uste badu ez dagoela modu hezigarrian esku hartu beharrik jokabidean.

87. artikulua. Prozedura orokorra eta adiskidetze-prozedura hastea.

1.- Prozedura orokorraren eta adiskidetze-prozeduraren hasiera arrunta. Epeak.

a) Zuzendariak emango dio hasiera prozedurari, idatziz, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea sortu ahal izan duten gertakarien berri izan eta gehienez ere hiru eskola-eguneko epean.

b) Aurreko puntuan adierazitako hiru eskola-eguneko epea igaro eta jokabidea eragin duten ustezko erantzulea edo erantzuleak identifikatu ez baditu, zuzendariak edo, hala badagokio, hark eskuordetzen duen ikastetxeko arduradunak haiek identifikatzeko eta dagokion prozedurari ekin ahal izateko egokitzat jotzen dituen jarduketak egingo ditu.

2.- Hasierako egintzan puntu hauek jaso behar dira, gutxienez:

a) Zer jokabide izan den, objektiboki deskribatuta, eta ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten zer jokabidetan sartzen den.

b) Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera aplika daitezkeen jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak.

c) Hala badagokio, hartzen diren behin-behineko neurriak eta haien justifikazioa.

d) Instrukzio-egilearen izendapena.

e) Dagokion hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena zer organok duen eta zein arauk esleitzen dion eskumen hori.

f) Prozedura orokorrean entzunaldiaren izapidea egiteko zitazioa. Aipatuko da kontrako frogabideak proposatzeko aukera egongo dela, edo, bestela, adiskidetze-prozedurara jotzeko aukera, dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan.

g) Ikaslea eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko tutoreak entzunaldi-izapidera ez agertzearen ondorioak.

3.- Hasiera-egintza eta aplika daitezkeen behin-behineko neurriak jakinaraztea.

a) Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabidea egozten zaion ikasleari jakinaraziko zaio, eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei, gertaeren berri izan eta hurrengo lehen eskola-eguna amaitu baino lehen, egilea nor den jakinez gero beti. Egilea nor den jakin ezean, jakinarazpena gehienez ere eskola-egun bateko epean egingo da, egiletzaren berri jakiten denetik aurrera.

b) Zuzendariak behin-behineko neurriak ezartzen baditu dekretu honetan aurreikusitako baldintzak betez, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei jakinaraziko dizkie.

4.- Bilera egitea prozedura orokorrean entzunaldiaren izapidea egiteko, edo adiskidetze-prozedurari heltzeko aukera izateko.

a) Entzunaldiaren izapidearen helburua da bermatzea ikasleak eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea dutela haien iritzia entzuna izateko eta adingabea defendatzeko.

b) Entzunaldiaren izapidea hasiera-egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, baldin eta gurasoen edo legezko tutoreen entzunaldia nahitaezkoa ez bada, eta, bestela, gehienez ere hiru eskola-eguneko epean. Entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak aurrera jarraituko du.

c) Ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie —indarrean dauden legeek ezartzen duten zuhurtasuna errespetatuz beti—, egoki deritzotena alega dezaten eta egoki deritzeten frogabideak proposa ditzaten. Alegazio horiek eta frogabideen proposamena idatziz egingo dira, bi eskola-eguneko epean, gehienez ere.

5.- Adiskidetze-prozedurari heltzea.

a) Ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei eskaintzen bazaie adiskidetze-prozedurari heltzeko aukera, idatziz jakinarazi beharko diote ikastetxeko zuzendaritzari prozedura hori onartzen duten ala ez, horretarako deitutako bileran bertan.

b) Bilerara agertzen ez badira edo adiskidetze-prozeduraren aukerari uko egiten badiote, dekretu honetan xedatutako prozedura orokorra izapidetuko da.

88. artikulua. Adiskidetze-prozedurak aurrera jarraitzea. Bideratzaileak edo bitartekariak esku hartzea. Ebazpena eta epeak.

1.- Ikasleak eta, adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek adiskidetze-prozedura aukeratzen badute, zuzendaritzak bilera baterako deia egingo die prozeduraren bideratzaileari edo bitartekariari eta eragindako pertsonei, hiru eskola-eguneko gehieneko epean, prozedura hori onartu zen bilera egin zenetik hasita.

2.- Bideratzaile edo bitartekari batek esku-hartzea adiskidetze-prozeduran.

Adiskidetze-prozedura modu egokian garatu dadin laguntzeko, bideratzaile edo bitartekari batek jardungo du, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudian ezartzen den moduan. Pertsona hori prozeduran parte hartzen duen zuzendaritzako pertsonarekin lankidetzan arituko da, ukitutako pertsonen arteko hurbilketa errazteko eta aplikatu beharreko hezkuntzako esku-hartze neurriari buruzko adostasuna lortzeko.

Bideratzaileak edo bitartekariak eginkizun hauek izango ditu prozeduran:

a) Adiskidetze-prozesuan laguntzea.

b) Ukitutako pertsona bakoitzak gainerako alderdien interesak, premiak eta nahiak uler ditzan laguntzea, elkar ulertzea errazteko.

c) Adiskidetze-prozeduran adostutakoa behar bezala bete dadin laguntzea.

3.- Ikasleak izandako jokabidearen eta horren ondoriozko kaltearen erantzukizuna bere gain hartzeko duen prestasuna inguruabar aringarri gisa hartuko da kontuan, dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan, jokabidea aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria zehaztean.

4.- Azkenik, prozeduran parte hartzen ari diren pertsonek adostu beharko dute jokabidea aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko zer neurri den egokiena ikaslearen jokabidea zuzentzeko. Idatziz jaso beharko da jokabidearen ardura duen ikaslea eta kaltea nozitu duen pertsona ados daudela jokabideak aldatzeko ezarri diren hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriekin.

Alderdiek adostutako akordioa ikastetxeko zuzendariak berretsiko du.

5.- Ikasleak ez baditu betetzen adostutako neurriak —hau da, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzekoak—, haren jokabidearen gaineko hezkuntza-arloko esku-hartze bat egingo da, prozedura orokorraren bidez.

6.- Alderdien arteko akordioa lortzen denean amaituko da adiskidetze-prozedura. Akordiorik lortzen ez bada, prozedura orokorraren bidez emango zaio jarraipena; prozedura orokorra dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera garatuko da.

89. artikulua. Prozedura orokorrak aurrera jarraitzea. Ebazpena, jakinarazpena eta epeak. Erreklamazioak. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko unea.

1.- Ebazpen-proposamena. Entzunaldi-izapidea amaitutakoan, instruktoreak gertakariei buruz aurretik zeuden probak baloratuko ditu, bai eta ikasleak eta, adingabea izanez gero, haren gurasoek edo legezko tutoreek aurkeztu dituztenak ere. Aurkeztutako alegazioak ere aztertuko ditu, egitateak argitzeko eta baloratzeko egokitzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu, eta, haiei buruzko ondorio bat lortu ondoren, ebazpen-proposamen bat idatziko du idatziz.

2.- Prozedura ebaztea eta ebazpena jakinaraztea.

a) Ebazpena ikastetxeko zuzendariak egingo du. Arrazoitua izan beharko da, eta hauek jaso beharko ditu: ikasleari egotzitako egitateak, jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria edo neurriak aplikatzea justifikatzen duten oinarriak, neurrion proportzionaltasuna bermatzeko kontuan hartutako inguruabarrak, eta, hala badagokio, neurrien edukia, aurkeztutako aurkako alegazioen eta frogen azterketa, aplikatzen hasteko unea, zer organori aurkez dakiokeen erreklamazioa eta horretarako epea.

b) Ebazpena lehenbailehen jakinaraziko zaie ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien gurasoei edo legezko tutoreei.

c) Ebazpen hori eskola-kontseiluari eta irakasleen klaustroari jakinaraziko zaie zuzendariak egoki deritzon moduan.

d) Dekretu honen 91. artikuluan aurreikusitako kasuetan, Hezkuntzako lurralde-ordezkariari eta, hala badagokio, dagozkion gizarte-zerbitzuei, polizia-zerbitzuei edo Fiskaltzari helaraziko zaie ebazpena.

3.- Prozedura orokorra amaitzeko epeak.

a) Prozedura, gehienez ere, hamabost eskola-egunetan amaitu beharko da, prozedurari hasiera emango zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi zitzaien egunetik aurrera.

b) Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala gomendatzen badute, zuzendariak beste hamar eskola-egunez luzatu ahal izango du epea.

c) Luzatutako epea ebazpen-proposamenik egin gabe igarotzen bada, prozedura iraungitzat joko da, baldin eta atzerapena ezin bazaio ikasle interesdunari egotzi edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei. Iraungitzeak ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat hartu daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak polizia-zerbitzuei edo Fiskaltzari jakinarazi beharra, baldin eta zigor-arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

4.- Erreklamazioa eskola-kontseiluan eta beste instantzia batzuetan.

a) Zuzendariaren ebazpenaren aurka, ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote eskola-kontseiluari, eta hark arau hauen arabera berrikusi ahal izango du:

Lehenengoa. Eskola-kontseiluak, aplikatu beharreko neurria erabakitzen duen idazki arrazoitua eta erreklamazioan jasotako alegazioak aztertu ondoren, neurri hori berretsiko du, baldin eta dekretu honetan aurreikusitakoarekin bat datorrela uste badu, edo, bestela, neurria berrikustea erabakiko du.

Bigarrena. Eskola-kontseiluak, kideen gehiengo osoz hartutako erabaki baten bidez, bere eskumenak eskuordetu ahal izango dizkio bizikidetza-batzordeari, erreklamazioak berrikusteko.

Hirugarrena. Eskola-kontseiluak, gehienez ere, hiru eskola-eguneko epean hartu beharko du erabakia.

b) Eskola-kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko tutoreek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariari, jakinarazpena jaso eta hiru egun balioduneko epean.

5.- Jakinarazpena.

Eskola-kontseiluak hartutako erabakiaren jakinarazpenean erabaki horren eduki osoa jasoko da. Arrazoitu egingo da hartutako erabakia, bai zuzendariaren aurreko erabakia berresten bada, bai erabaki hura berriz aztertzekoa bada. Era berean, Hezkuntzako lurralde-ordezkariari erreklamazioa aurkezteko zer epe dagoen ere adieraziko da.

6.- Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak aplikatzeko unea.

Une hauetan aplikatuko dira jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak:

a) Jokabide desegokiak zuzentzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriak direnean, erabakitzen diren unetik aurrera.

c) Bizikidetzaren kontrako jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien kasuan, zuzendariari erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den unetik aurrera. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriari buruzko erabakia erreklamatu bada, zuzendariak erreklamazioa ebazten duen unetik aplikatuko dira.

c) Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurrien kasuan, ikastetxeko eskola-kontseiluan erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den unetik aurrera. Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurriari buruzko erabakia erreklamatu bada, ikastetxeko eskola-kontseiluak erreklamazioa ebazten duen unetik aplikatuko dira.

90. artikulua. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokien gizarte-

zerbitzuei jakinaraztea. Fiskaltzari jakinaraztea.

1.- Dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

a) Jokabideak aldatzeko hezkuntza-arloko esku hartzeko neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide bati lotuta dagoen guztietan, erabakiaren kopia bat helaraziko zaio dagokion lurralde-ordezkariari, Hezkuntzako Ikuskaritzaren bidez. Kasu honetan ere bidaliko zaio kopia: bizikidetzaren aurkako jokabide bat izan eta aplikatuko den neurriak garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea badakar.

b) Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak foru aldundietako edo udaletako gizarte-zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, ikastetxeek aplikatu zaien neurria zerbitzu horiei helarazi beharko diete, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

2.- Fiskaltzari jakinaraztea.

a) Ikastetxeko zuzendaritzaren ustez, ikusitako jokabidea delitu edo falta penala izan badaiteke, Fiskaltzari eman beharko dio horren berri.

b) Ikaslea adingabea bada, hauen berri ere eman beharko da, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetzeko:

Lehenengoa. Jokabidea hezkuntza-arloko esku-hartzearen xede izaten ari dela hezkuntza-eremuan.

Bigarrena. Adiskidetzea gertatu dela.

Hirugarrena. Erreparazioa egin dela edo hura egiteko konpromisoa dagoela.

c) Zuzendariak Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio Hezkuntza Ikuskaritzari. Hezkuntzako Ikuskaritzak dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariari helaraziko dio kopia hori.

Lehenengo xedapen gehigarria. Ikastetxeetako bizikidetza-planak aldatzea.

Dekretu hau argitaratu eta hamar hilabeteko epean, funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeek dekretu honetan xedatutakora egokituko dituzte beren bizikidetza-planak.

Bigarren xedapen gehigarria. Ikastetxeetako antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak aldatzea.

1.- Dekretu hau argitaratu eta hamabi hilabeteko epean, funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek dekretu honetan xedatutakora egokituko dituzte beren antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak, eta horretarako beharrezkoak diren aldaketak txertatuko dituzte, bizikidetza-plana betetzen dela bermatzen dutenak barne. Egokitzapen horrek, nolanahi ere, ikastetxean gailu mugikorrak edo antzekoak erabiltzeko berariazko erregulazioa jasoko du,

dekretu honen 9. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2.- Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudi berria idazteko batzorde bat eratzen bada, eskola-kontseiluko ordezkaritza-baldintzak eta -proportzioak errespetatu beharko dira, eta, horretarako, boto haztatuaren sistema ezar daiteke.

3.- Eskola-kontseiluek Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiaren idazketa berria onartu baino lehen, entzun egin beharko zaie ikastetxe bakoitzean legez eratuta dauden guraso-elkarteei eta ikasle-elkarteei, bai eta ikastetxeko ikasleen ordezkarien batzordeari ere.

Hirugarren xedapen gehigarria. Hizkuntza ofiziala.

Edozein dela ere ikasleek erabiltzen duten komunikazio-hizkuntza, gurasoek edo legezko ordezkariek dekretu honetan araututako prozeduretan egiten dituzten esku-hartzeak, bai eta igortzen zaizkien jakinarazpenak eta informazioak ere, haiek aukeratutako hizkuntza ofizialean egingo dira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. eta 6. artikuluekin bat etorriz.

Xedapen iragankor bakarra. Aldez aurretik abiarazitako prozedurak.

201/2008 Dekretutik eratorritako jokabideak zuzentzeko prozedurek, dekretu hau indarrean jartzen den egunean hasita badaude, osorik amaitu arte jarraituko dute, aurreko araudiaren arabera, salbu eta dekretu hau aplikatzea berariaz erabakitzen bada eta interesdunek edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariek idatziz aurkezten badute erabaki hori.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetuta geratzen da dekretu honetan ezarritakoaren aurka doan eta maila berekoa edo beheragokoa den xedapen oro, eta, bereziki, 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Azken xedapenetako lehenengoa. Garatzeko eta betearazteko ahalmena.

Hezkuntza-arloko eskumena duen saileko titularrari baimena ematen zaio dekretu hau garatu eta egikaritzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Dekretu hau 202X(e)ko XXXXaren XX(e)(a)n jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 202X(e)ko XXXXXaren XX(e)an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Hezkuntzako sailburua,
BEGOÑA PEDROSA LOBATO.